# EIBARKO HAUR ETA NERABEEN I. TOKIKO PLANA (2025-2028)



**Izenburua**: EIBARKO HAUR ETA NERABEEN TOKIKO PLANA 2025-2028

**Edizioa**: Eibarko Udala

**Lantaldea:** EDE Fundazioa

**Argitalpen-data**: 2025eko ekaina

# Aurkibidea


**1. SARRERA** ........ 5

**2. ARAUDI MAILAKO ESPARRUA** ........ 6

**3. METODOLOGIA** ........ 10

**4. EIBARKO HAUR ETA NERABEEN DIAGNOSTIKOA** ........ 12

**5. PLANAREN PRINTZIPIOAK ETA IKUSPEGIAK** ........ 20

**6. HELBURUAK, JARDUTEKO ILDOAK ETA EKINTZAK** ........ 22

**1. HELBURUA Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea** ........ 27

**2. HELBURUA Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea** ........ 30

**3. HELBURUA Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean** ........ 32

**4. HELBURUA Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz** ........ 36

**5. HELBURUA Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz** ........ 39

**6. HELBURUA Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea** ........ 41

**7. HAUR ETA NERABEENGAN EGINDAKO INBERTSIOA** ........ 43

**8. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** ........ 44

**9. JARRAIPEN ADIERAZLEAK** ........ 48

**10. ERANSKINAK** ........ 56

**Zein da helburu bakoitzerako urteko gastu aurreikuspena?** ........ 56

**Zer pisu dute helburu eta jarduteko ildo bakoitzeko ekintzek?** ........ 56

**Udaleko zer sail eta erakundek garatzen dituzte ekintzak Planaren helburu bakoitzean?** ........ 57

**Nori zuzenduak daude Planeko ekintzak?** ........ 57

**Zenbat ekintzak barne biltzen dute berariaz parte-hartzearen, desgaitasunaren, berdintasunaren eta euskararen ikuspegia?** ........ 57

**Plan honetako ekintzek 2030 Agendako zein xede eta GJHri egiten diete ekarpena nagusiki?** ........ 58

# Alkatearen agurra

Eibarko haurtzaroa eta nerabezaroa gure udalerriaren oraina eta etorkizuna dira. Eibarko Udalak irmoki sinesten du beren eskubideak bermatzea eta ongizatea sustatzea guztiok ukitzen gaituen erantzukizun kolektiboa dela. Udalerriok, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak garen aldetik, ingurune seguruak, parte-hartzaileak eta babesleak sortzeko aukera eta betebeharra dugu, haur eta nerabe guztien hazkundea eta garapen osoa laguntzeko.

Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plan hau benetako plangintza eta konpromisorako tresna gisa sortu da, 2024an egindako partaidetza-diagnostikoan jasotako ezagutzatik abiatuta. Prozesu horri esker, bertatik bertara ezagutu ahal izan ditugu Eibarko haur eta nerabeen ahotsa, bizipenak, beharrak eta proposamenak. Hortik abiatuta, Plan honek erantzun koherentea, koordinatua eta zeharkakoa artikulatzen du, tokiko politikak eskubideen ikuspegitik indartzeko, haurren eta nerabeen begirada udal-jardueran modu estruktural eta iraunkorrean txertatuz.

Planak 6 helburu estrategiko, 16 jarduera-ildo eta 93 ekintza jarri ditu abian funtsezko alderdiak jorratzeko; hala nola parte-hartzea, osasuna eta ongizate emozionala, jolaserako eta aisialdirako eskubidea, berdintasuna, bizikidetza, euskararen erabilera edo familiei laguntzea. Hori guztia, bidezkoagoa eta adingabeen benetako premietara egokitua izango den hiria eraikitzeko borondatearekin.



Eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, Eibarko haur eta nerabeei eta udalerriko ikastetxeei, beren inplikazioa funtsezkoa izan baita prozesu honi zentzua eta orientazioa emateko. Beren ahotsak gogorarazten digu gobernantza irekiago, inklusiboago eta hurbilagorantz egiteko bide bakarra herriko bizitzan modu aktiboan parte hartzeko duten eskubidea aitortu eta sustatzea dela.

Era berean, Udaleko sail guztien lana eta inplikazioa aitortu nahi dut, baita Plan hau egiten lagundu duten erakunde sozial, tekniko eta profesionalen lankidetza ere. Elkarrekin egindako ahaleginari esker, Eibarrek urrats sendoz egiten du aurrera Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko bidean, eta are garrantzitsuagoa dena, hiri justuago, abegikorrago eta belaunaldi berriekin konprometituago baterantz.

**Jon Iraola Iriondo**,
Eibarko alkatea

# 1. SARRERA

**Eibarko Haur eta Nerabeen Tokiko Plana 2025–2028** (aurrerantzean, **HNTP**) udalerrian gobernantza-eredu hurbilagoa, parte-hartzaileagoa eta haur eta nerabeentzako inklusiboagoa lortzeko bidean aurrerapausoak egiteko gida estrategikoa da. Era berean, tresna garrantzitsua da tokiko politika publikoen fase guztietan haur eta nerabeen ikuspegia zeharka integratzeko, diseinutik hasi eta ebaluaziora arte. Hala, haur eta nerabeak babestuak daudela eta beren eskubideak behar bezala betetzen direla bermatzen da.

HNTParen helburua 2024an Eibarko haur eta nerabeei buruz egindako diagnostikoan hautemandako erronkei erantzutea da, haur eta nerabeen erabateko garapena eta ongizatea bermatzeko udal-ekintza koordinatuak martxan jarriz. Halaber, Planaren asmoa haur eta nerabeei zuzendutako udal-ekimen guztiak antolatzea, egituratzea eta koherentzia ematea da, Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta bere Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH 17+1)[1] lerrokatuz.

Eibarko Udaleko Gizarte-ekintza Saila da Plan hau ezartzeko liderra eta 2025etik 2028ra bitarte egongo da indarrean. Plana bat dator Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezarritako bost helburu orokorrekin eta haurren babesa, sustapena eta eskubideak behar bezala betetzea bermatzen du:

1. Baloratuak, errespetatuak eta modu bidezkoan tratatuak izatea.
2. Haien iritziak, beharrak eta bizitza publikoko lehentasunak kontuan hartzea.
3. Oinarrizko eta kalitatez gizarte-zerbitzuak izatea.
4. Ingurune seguruan, babestuan eta garbian bizitzea.
5. Familia-bizitzaz, jolasaz eta aisialdiaz gozatzeko aukerak izatea.

### Zer kolektibori dago zuzendua Plana?

Hauek dira HNTParen hartzaileak:

- Eibarko **haurrak eta nerabeak**;
- Haur eta nerabeen hazkuntzaz, heziketaz eta zaintzaz **arduratzen diren guraso eta pertsonak**.
- Haur eta nerabeekin aritzen diren **profesionalak, boluntarioak eta gainerako eragileak**.
- Udalerriko **biztanleria**, oro har.

### Zer helburu ditu?

Plan honek helburu hauek ditu:

1. **Haur eta nerabeek udalerriko bizitzan parte har dezaten sustatzea;** adierazteko, entzunak izateko eta eragiten dieten gaietan rol protagonista izateko espazioak bermatuz.
2. **Udal-baliabideak eta -programak garatzea eta indartzea**, haur eta nerabeen eskubideak betetzeko eta hobetzen jarraitzeko.
3. **Herritarren inplikazioa eta erakundeen eta gizarte-eragileen arteko lankidetza sustatzea**, politika publiko eraginkorragoak, partekatuak eta jasangarriak lortzeko aurrerapausoak emateko.
4. **Tokiko politikek haur eta nerabeen ongizatean eta bizi-kalitatean duten inpaktua etengabe ebaluatzea**, udalaren ekintzek haien behar errealei erantzuten dietela bermatzeko.

Azken batean, HNTP honek udalerrian lan egiteko modu bat ezartzen lagunduko du, haur eta nerabeen ikuspegia udalaren sail eta erabaki guztietan integratzeko. Gainera, kolektibo horri zuzendutako kudeaketa-eredua finkatzeko aukera emango du, **gardentasunean, etengabeko ebaluazioan eta herritarrei kontuak ematean oinarrituta.**

[1] 2030 Agendako 17 GJHak eta beste helburu bat (18) –euskararen garapena, euskal kultura eta gaitasun eleaniztuna sustatzea– hartu dira kontuan.

# 2. ARAUDI MAILAKO ESPARRUA

HNTPa bat dator araudiaren garapen eta ezarpenarekin, bai eta nazioartean, estatuan, erkidegoan, lurralde mailan eta udalerrian indarrean dauden eta haur eta nerabeen eskubideak espezifikoki aitortu eta bermatzen dituzten plan eta estrategiekin ere.

## Nazioarteko araudia

Haur eta nerabeen eskubideen babesaren jatorria nazioarteko lehen tresnetan dago, besteak beste, **Haurren Eskubideei buruzko Genevako Adierazpenean (1924)** eta **Haurren Eskubideei buruzko Adierazpenean (1959)**. Dokumentu horiek mugarri izan dira adingabeak eskubidedun subjektuak direla aitortzen dutelako eta helduek eta erakundeek haiek eta zaintzeko erantzukizuna dutela adierazten dutelako.

Arlo horretako nazioarteko esparru juridiko nagusia **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH)** da, Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1989an onartua. Hitzarmen hori munduko herrialde gehienek onartu zuten eta haur eta nerabe guztientzako eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ezartzen ditu, eta estatu sinatzaileek eskubide horiek betetzeko konpromisoa dute. Gainera, hiru protokolo fakultatibo ditu irismena handitzeko: lehenengoa haur eta nerabeen trafikoari, prostituzioari eta pornografiarako erabiltzeari buruzkoa; bigarrena adingabeen gatazka armatuetako parte-hartzeari buruzkoa; eta hirugarrena haur eta nerabeek Haurraren Eskubideen Batzordean salaketa jartzeari buruzkoa.

HEH lau printzipio garrantzitsutan oinarritzen da: **diskriminaziorik eza, adingabearen interes gorena, bizitza, biziraupen eta garapenerako eskubidea**, eta **haur eta nerabeen iritzia eta parte-hartzea errespetatzea.**

Bestalde, Nazio Batuek 2015ean onartu zuten **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak** indartu egiten du haurrekiko nazioarteko konpromisoa. Agendaren **Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH)** aitortzen dute haurren eskubideak ezinbestekoak direla garapen global bidezkoa eta parekidea lortzeko. Horri dagokionez, GJHek aukera ematen dute mundu osoko haur eta nerabeen ongizatea, garapen integrala eta babes egokia bermatzeko, inor atzean ez uzteko printzipioaren pean.

## Europar Batasuna eta Europako Kontseilua

Haur eta nerabeekiko konpromisoa Europako erakundeen jarduketa-markoaren parte da, **Europar Batasunean** nahiz **Europako Kontseiluan** haur eta nerabeen babesa, ongizatea eta bizitzako arlo guztietan parte-hartze aktiboa sustatzen duen eskubide-ikuspegia indartuz.

Europar Batasunean, **Europar Batasuneko Tratatuaren (1992) 3.3 artikuluak** ezartzen du bere helburuetako bat haurren eskubideak babestea dela. Konpromiso hori **1992ko uztailaren 8ko Europako Parlamentuaren Ebazpenarekin** indartu zen. Ebazpen horrekin **Haur eta Nerabeen Eskubideen Europako Gutuna** egitea onartu zen, eta haur eta nerabeen askatasunerako, segurtasunerako eta garapen integralerako printzipio minimoak jasotzen dira gutun horretan. Ondoren, **Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000)** ikuspegi hori finkatu zuen, berariaz aitortzen baitu adingabe guztiek beren ongizaterako beharrezko babesa eta zaintza jasotzeko eskubidea dutela, eta estatu kide guztiak behartzen ditu eskubide hori aplikatzera.

Plano politikoan, **EBren Haurren Eskubideen Estrategia 2021-2024 eta Haurren Europako Bermea** dira ekintza-esparru nagusia; haur guztiek, eta batez ere zaurgarrienek, ezinbesteko zerbitzu guztietarako -besteak beste, osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren edo elikaduraren arloan- sarbidea izan dezaten aurrerapausoak emateko. Gainera, ekimen horiek parte-hartze aktiboa sustatzen dute gizartean eta haien

iritzia errespetatzen dute. Estrategiarekin bat etorriz, 2024ko apirilaren 23an, Europak **Haurren babeserako sistema integratuak indartzeko gomendioa** onartu zuen, adingabearen interes gorena bermatze aldera.

Bestalde, **Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950)** eta **Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren** jurisprudentzia dira Europan haurren eskubideak defendatzeko iturri juridikorik garrantzitsuenak, babes gehigarria ematen baitute funtsezko giza eskubideen urraketen aurrean.

**Europako Kontseiluak** hainbat mekanismo eta arau-esparruren bidez artikulatzen du haurrekiko konpromisoa. **2003an**, **Gazteek tokiko eta eskualdeko bizitzan duten parte-hartzeari buruzko Europako gutun berrikusia** onartu zen. Tresna horrek gazteen inplikazio aktiboa sustatzen du udalerriko eta eskualdeko erabakietan eta gai publikoetan haien ahotsa ere bermatzeko egiturak sustatzen ditu.

Indarkeriaren aurkako babesaren arloan, Europako Kontseiluak **tratatu lotesleak, jarraibide politikoak eta sentsibilizazio-kanpainak** sustatu ditu, besteak beste, zigor fisikoarekin eta sexu-abusuekin amaitzeko. Estatu kideek nazioarteko estandarrak betetzen dituztela ikuskatzen jarduten du aktiboki eta gaitasun instituzionalak indartzen ditu.

Ahalegin hori guztia **2022–2027 arteko Haur eta Nerabeen Eskubideentzako Europako Kontseiluaren Estrategiaren** barruan gauzatu da, eta giza eskubideen ikuspegi integrala du oinarri. Estrategia horrek lehentasunezko hainbat arlo identifikatzen ditu: aukera-berdintasuna, indarkeria mota guztien aurkako babesa, parte-hartzearen sustapena, sistema judiziala haien beharretara egokitzea, ingurune digitalean dituzten eskubideak babestea eta krisi-egoeretan haien eskubideak bermatzea. Azken dimentsio hori COVID-19aren pandemiak utzitako ondorio sozialei eta emozionalei erantzuteko txertatu zen. Izan ere, larrialdi-egoeretan eskubideak bermatzeko zeuden arrakalak agerian geratu ziren.

### Estatuko araudia

**Espainiako Konstituzioak** bere 15. eta 39. artikuluetan adingabeen babesa aitortzen du. Beren osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea botere publikoen lehentasunezko betebeharra da.

Espainiar Estatuan haur eta nerabeen babeserako araudi nagusia **ekainaren 4ko haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko 8/2021 Lege Organikoa da**, LOPIVI izenez ezagutzen dena. Arauaren helburua da haur eta nerabeen funtsezko eskubideak eta edozein indarkeriaren aurrean haien osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta morala bermatzea da, eta babes integralerako neurriak ezartzen ditu (sentsibilizazioa, prebentzioa, hautemate goiztiarra, babesa eta kaltea erreparatzea bizitzako arlo guztietan).

**Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoan,** hemezortzi urtetik beherako haurrak sexu-indarkerietatik babestea bermatzeko neurri espezifikoak daude.

**Haur eta nerabeen kontrako indarkeria desagerrarazteko 2023-2030 estrategiak** Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko Lege Organikoa ezartzen du eta haur eta nerabeen giza eskubideak betetzea eta gauzatzea bermatzen du. Horretarako, indarkeria mota guztien prebentzioa indartzen du, hautemate-sistema hobetzen du, goiz esku hartzen du ikuspegi integral eta diziplina anitzekotik eta eragileen arteko lankidetza eta kolaborazioa finkatzen du.

### Erkidegoko araudia

**1979ko abenduaren 18ko Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutuari buruzko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluak** dio EAEk duela haur eta gazteen politikaren arloko konpetentzia esklusiboa. Konpetentzia hori **Lurralde Historikoetako Foru Organoekin** koordinatzen da, Autonomia Erkidegoko

Erakunde Komunen eta foru-organoen arteko harremanak arautzen dituen **1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legean** xedatutakoaren arabera eta organo horien autonomia aitortzen da arlo horretako politikak garatzeko eta aplikatzeko garaian.

**EAEko Haur eta Nerabeen Arretarako eta Babeserako 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea** funtsezko erreferentea da, haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko, babesteko eta bermatzeko jarduketa publikoaren printzipio gidariak ezartzen baititu. Lege horrek arrisku- edo babesgabetasun-egoeretarako mekanismoak jasotzen ditu eta beste arau sektorial batzuekin osatzen da, hala nola **Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin** eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa onartzen duen **2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuarekin**.

Garapen horien ildotik, 2018an onartutako **Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunak** berretsi egiten du erakundeek haurren eskubideekin duten konpromisoa eta erakundeen arteko ekintza koordinatuak sustatzen ditu. Itun hori **Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde Arteko V. Planaren** bitartez zehaztuko da. Uda honetan argitaratzea aurreikusten da eta haurren eta familien ongizatea hobetzeko neurri zehatzak artikulatuko ditu.

Halaber, **Haur eta Nerabeekiko Indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia 2022-2025** jarri da martxan, euskal erakundeei gaitasun handiagoak emateko adingabeen aurkako edozein indarkeria mota prebenitzeko, hautemateko eta esku hartzeko, eta eskubideen eta arreta goiztiarraren ikuspegia indartu da.

Testuinguru honetan, **Haur eta Nerabeen 2024ko otsailaren 25eko 2/2024 Legea** nabarmentzen da. Lege horrek aurrerapauso kualitatiboa ekarri du arau-esparruan. Arau integrala da eta existitzen den legedia sistematizatu eta bateratzen du, estatuko oinarrizko araudia zein erkidegoko xedapen sektorialak barne hartuz. Lege horrek zeharka jorratzen ditu haur eta nerabeen behar eta eskubideak, eta babes juridikoa, parte-hartze aktiboa eta baliabide eta zerbitzuetarako sarbide parekidea indartzen ditu.

Horrez gain, erkidegoko beste lege berriago batzuek ere osatu dute esparru hori, zeharka. **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko 2023ko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak** hezkuntza-eredu inklusiboa, parekidea eta ikasleen garapen integralean oinarritutakoa indartu du, eta parte-hartzearen, berdintasunaren eta adingabearen ongizatearen babesaren printzipioak txertatu ditu. Bestalde, **Genero-identitateagatik ez diskriminatzeko eta trans pertsonen eskubideak aitortzeko 2024ko otsailaren 15eko 4/2024 Legeak** berme espezifikoak ezartzen ditu etaparik goiztiarrenetatik genero-dibertsitatea babesteko eta diskriminaziorik eza, sentsibilizazioa eta haur eta nerabe bakoitzaren identitatearekiko errespetua sustatzen ditu.

### Foru-araudia

**EAEko Haur eta Nerabeen Arretarako eta Babeserako 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea**k foru-aldundiei ematen die **babesgabetasun-egoera larrian dauden haur eta nerabeak babesteko eskumena**. Hortaz, foru-erakundeek ezarri behar dituzte adingabe horien ongizatea eta eskubideak bermatzeko beharrezko babes-neurriak eta esku-hartzeak.

Sistema hori indartze aldera, **Haur eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuaren Batzorde Teknikoa sortu zen 2022ko abenduaren 13ko 20/2022 Foru Arauaren** bidez. Organo tekniko hori diziplina anitzekoa da eta haurrak babesteko kasuen azterketa egitea, erabakiak hartzea eta irtenbideak proposatzea da haren funtzioa. Halaber, foru-organo eskudunari erabakiak hartzen laguntzen dio. Lurraldean haur eta nerabeak babesteko garaian sendotasun tekniko eta koordinazio handiagoa izateko sortu da batzorde hori.

Sustapenaren eta parte-hartzearen arloan, **2019ko apirilaren 16ko 12/2019 Foru Dekretuak Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde Arteko Sarea** sortzea arautu zuen, ***Gaztematika*** izenekoa. Sare publiko

horrek hainbat administrazio biltzen ditu, lurralde historikoko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako sustapen- eta laguntza-politikak modu koordinatuan bultzatzeko helburuarekin.

Gainera, Aldundiaren konpromisoa egungo **Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024–2027 Plan Estrategikoan** dago islatuta eta lehentasunen artean dago **gazteentzako aukerak sortzea** eta politika publikoak diseinatzeko, exekutatzeko eta ebaluatzeko garaian gazteen **parte-hartze aktiboa sustatzea**. Zehazki, planaren **1.4 helburuak** proposatzen du gazteen artean kultura demokratikoa sortzeko proiektu parte-hartzaileak sustatzea, hezkuntza arloarekin eta lurraldeko beste eragile garrantzitsuekin batera.

### Tokiko araudia

**Euskadiko Tokiko Erakundeen 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak** tokiko erakundeen konpetentzia-esparrua ezartzen du, haur eta nerabeei zuzendutako politikei eta jarduketei dagokienez. Udalerrietako sailak, erakundeak eta organismoak dira tokiko politika publikoak agindu, kudeatu, planifikatu eta sustatzeaz arduratzen direnak, hainbat arlotan: babes zibila, herritarren segurtasuna, udal-ekipamenduak eta espazio publikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, kultura, kirola, etab. Zehazki, HNTPa esparru horren barruan garatzen da.

**Euskararen 2016-2025 Plan Estrategikoarentzat** ezinbestekoa da udalerriko eragile sozialak aktibatzea haur, nerabe eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko. Helburu nagusia 2025erako haur eta gazteen arloan, kirolean, aisialdian, eskolan zein familian euskararen erabilera nagusi izatea da. Horretarako, AKEBAI plataforma jarri da martxan Udala eta arlo horretan jarduten duten elkarte eta eragileak bateratuz.

Eibarko **2021-2024 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Planaren** helburua ikastetxeetan eta eskola-kiroleko begiraleen artean hezkidetza-balioak sustatzea da (3.2.1 eta 3.2.2 helburuak), bai eta udalaren arlo guztietan berdintasun-ikuspegia txertatzea ere.

**2023-2027 Adikzioen Prebentziorako VI. Udal Planak** eskolan, familian, aisialdian eta denbora librean eskaria murrizteko (prebentzioa eta arriskuak murriztea) ekintzak jasotzen ditu. Azken arlo hori nerabeei eta gazteei dago zuzenduta batik bat.

**2024-2028 Eibarko Bizikidetzaren eta Dibertsitatearen IV. Planaren** helburua biztanleria plural eta inklusiboa izatea da, Eibarren bizi diren pertsona guztien integrazioa eta bizikidetza sustatuz. Planak, besteak beste, atzerriko familietako haurrek eskolaz kanpoko jardueretan parte har dezaten sustatzea eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzen jarraitzea aurreikusten du. Halaber, kulturarteko bizikidetza sustatzea du xede (4. erronka: haur eta nerabeek bizikidetzarako eta elkarren artean erlazionatzeko duten gaitasuna hobetzea).

Halaber, Eibarrek **Eskola Agenda 21** programa du eskola-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko, hiri jasangarria lortze aldera eta haur eta nerabeek beren auzoak eta udalerria hobetzeko prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaren gaineko kontzientzia hartze aldera.

# 3. METODOLOGIA

Eibarko HNTPa prozesu parte-hartzailearen bitartez egin da eta udalerriko haur eta nerabeek izan dute rol nagusia, haien **ikuspegia, esperientziak eta proposamenak** partekatu baitituzte. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik batxilergoko eta lanbide heziketako azken mailara bitarteko 900 ikasle baino gehiagok hartu dute parte diagnostikoan, online galdetegi baten bidez. Udalerriko zazpi ikastetxeei esker lortu da 10 eta 18 urte bitarteko eibartarren parte-hartze handi hori.

**Eibarko Haurren Udal Kontseiluak** ere hartu du parte HNTPan. Egun, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako 26 ikaslek hartu dute parte. Kontseilua haur eta nerabeek parte hartzeko organo egonkorra da eta udal-politikak diseinatzeko eta egiteko garaian haur eta nerabeak zein helduak lankidetzan aritzea du xede. Kontseiluaren lehen lan-saioan (2025eko apirilaren 8a) espazio horretako ordezkariekin kontrastatu dira Planean gehitu beharreko ekintzak. Guztira, **35 ideia eta ekarpen** jaso dira Eibarko HNTParentzat.



Kontrastatze hori funtsezkoa izan da Haurren Hiri Lagun Koordinazio Mahaiko udal-sailek (eta haur eta nerabeei eta haien familiei zuzendutako programak edo zerbitzuak kudeatzen dituztenek) Planean gehitu beharreko ekintzak definitu eta identifikatu ahal izateko. Lan honetan, dagoeneko egiten ari ziren ekimenak zein etorkizunean Haurren Udal Kontseiluaren bitartez sor daitezkeen proposamen berriak hartu dira kontuan.

Egun, udaleko hamaika sailek hartzen dute parte koordinazio-mahaian: Idazkaritza; Gizarte-ekintza; Kultura; Gazteria; Euskara; Berdintasuna; Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza; Hirigintza; Ingurumena; Udaltzaingoa eta Kirolak.

HNTParen diseinua eta ekintzen plangintza **bost fasetan** egin da:




- Lehen fasean, udalerriko haur eta nerabeen diagnostikoan identifikatutako erronkei buruzko gogoeta bateratua egin da. Azterketa horretatik abiatuta, **HNTParen helburu estrategikoak eta jarduketa-ildo nagusiak definitu dira**, bai eta oinarri izan behar dituen printzipioak eta zeharkako ikuspegiak ere.

- Bigarren fasean, definitutako helburuei erantzuteko udaleko sail bakoitzak **2025-2028 aldian garatzea aurreikusten duen ekintzak identifikatu ditu**. Proposamen horiek bat datoz 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) zein Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenaren (HEH) helburuekin.

  Jarraian, ekintza bakoitzari buruzko informazio xehea bildu dugu, ekintza zehazki deskribatzeko: aurreikusitako iraupena, kolektibo hartzaileak (adinak zehaztuz), txertatutako ikuspegiak (parte-

hartzea, inklusioa, berdintasuna, euskara), esleitutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, erabiltzaile kopurua (sexuaren arabera bereizita), eta garapena ebaluatzeko jarraipen-adierazlea (prozesuarena edo emaitzarena).

- Hirugarren fasean, Barne Koordinazio Mahaiaren parte diren sail guztien ekintzak **partekatu** dira, Planaren eta proposatutako ekintzen arteko koherentzia orokorra bermatzeko.

- Laugarren fasean zehar, **dokumentuaren azken kontrastea** egin da, eta azken egokitzapenak eta ekarpenak gehitu dira.

- Amaitzeko, bosgarren fasean, udaleko **osoko bilkurara eraman da HNTPa formalki onartzeko** eta hala onespen instituzionalaren prozesua osatu da.

Prozesu horretan zehar, aurrez aurreko bilerak (Barne Koordinaziorako Mahaiaren bost saio) udaleko sail bakoitzaren barne-lanarekin uztartu dira. Gainera, kontrastatzeko lau saio gehigarri egin dira Talde Eragilearekin. Haur eta nerabeei zuzendutako programek pisu nabarmena duten sailek osatzen dute talde hori: Gazteria, Gizarte-ekintza eta Ingurumena.

# 4. EIBARKO HAUR ETA NERABEEN DIAGNOSTIKOA

**2024ko Eibarko Haur eta Nerabeei Buruzko Diagnostikoa** da HNTParen abiapuntua. Azterketa horrek aukera eman du udalerriko haur eta nerabeen errealitatera hurbiltzeko eta haien beharrak, ezinegonak eta bizipenak jasotzeko. Entzute eta azterketa horretatik abiatuta, **18 erronka garrantzitsu** identifikatu dira tokiko politika eta jarduketa eraginkorragoak diseinatzeko, haur eta nerabeen ongizatea eta bizi-kalitatea oinarri hartuta.

**Diagnostikoaren laburpena** egingo da jarraian, aztertu beharreko hainbat arlo garrantzitsuren inguruan antolatuta: haurtzaroaren egitura demografikoa, familia-ingurunea eta etxeko harremanak, eskubideen gaineko ezagutza eta egikaritzea, osasuna eta bizimodua, hezkuntza eta euskararen erabilera, zaurgarritasun-egoera bereziak, aisialdiko esperientziak eta haur eta nerabeek hazteko eta garapenerako dituzten hiri-ingurunearen baldintzak.

## DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

Udal-erroldaren arabera, 2024ko azaroan, Eibarrek **27.596** biztanle ditu guztira, hau da, Debabarrena eskualdeko biztanleriaren % 50,2. **4.412 haur eta nerabe daude guztira**; horietatik % 48,7 neskak dira eta % 51,3 mutilak. Hortaz, adin horretako biztanleria **Eibarko biztanleria osoaren % 16,0 da**. Ratioa Gipuzkoan erregistratutakoaren berdina da ia (% 16,1)[2].

Azken hamarkadan, **jaiotza kopuru osoa % 24 jaitsi da**: 2023an, 178 haur jaio ziren, 2013an baino 55 gutxiago. Gainera, 2023an jaiotza baino heriotza (324) gehiago izan dira udalerrian, hortaz, Eibarko hazkunde begetatiboaren tasa negatiboa izan da (-5,41)[3], eta eskualdean (-4,93) baino handiagoa.

Hala ere, azken urteetan iritsi diren etorkinei esker, saldo natural negatiboaren efektuak arindu egin dira apur bat. 2024an, Eibarko biztanleriaren % 11,2 atzerrian jaiotakoa da, 2020an baino 280 gehiago[4]. Adin txikikoei dagokienez, beste herrialde batean jaiotako 614 haur eta nerabe daude Eibarren eta horietatik % 24,1ek 0 eta 3 urte artean dituzte; % 48k, 4 eta 12 urte artean; % 16,19k, 13 eta 15 urte artean, eta % 11,7k, berriz, 16 eta 17 urte artean. Zehazki, **atzerriko adingabeek biztanleria adingabe osoaren gainean duten pisua % 13,9koa da.**

## FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK

2024ko Eibarko haur eta nerabeen diagnostikoaren barruan egindako inkestaren emaitzek familia-harremanen gaineko pertzepzio oso positiboa adierazten dute: **haur eta nerabeen % 90,7k esan du gustura edo oso gustura dagoela etxean eta familiarekin.**

Etxeko parte-hartzea dela eta, azterketak erakusten duenez **haur eta nerabeen % 86,1ek adierazi du bere gurasoak entzuteko prest edo oso prest daudela.** Hala ere, familian erabakiak hartzeko garaian beren iritzia kontuan hartzen ote den galdetzean, behera egiten du hala dela uste duten haur eta nerabeen kopuruak: **lautik hiruk (% 75) dio bere iritzia beti edo ia beti kontuan hartzen dela.**

Inkesta diagnostikoaren emaitzen arabera, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak txikiak baina esanguratsuak dira kasu batzuetan. **Mutilek apur bat positiboago ikusten dute familiarekin duten harremana**; batez ere, gusturago sentitzen dira etxean (% 92,2 eta % 89,4) eta **asebeteago daude jardueretan partekatutako denborarekin** (% 68,2 eta % 63,5). Kontrara, neskek apur bat puntuazio hobea eman ohi diote **arazoren bat kontatzen dietenean gurasoen partetik entzunak sentitzeari** (% 86,3 eta % 85,8).

[2] EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika, 2024.
[3] EUSTAT. Heriotzen estatistika, 2023.
[4] EUSTAT. Biztanleen Udal Estatistika, 2024.

Horri dagokionez, Eustatek 2023an egindako lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeari buruzko azken inkestak[5] ohartarazten du **handitu egin dela EAEn laneko bizitza familiako bizitzarekin eta bizitza pertsonalarekin uztartzeko zailtasunak dituzten langileen kopurua.** Zehazki, mendeko pertsonak dituztenen ia herenak (% 32,9) dio zailtasun handiak dituela lana eta zaintza uztartzeko, 2022an baino ehuneko 4 puntu gehiago. Zailtasun maila hori bera hautematen du okupatutako biztanleriaren % 29,2k seme-alaben zaintzari dagokionez, hau da, 2022an baino 1,1 puntu gehiago. Azkenik, okupatutako pertsonen % 27,7k adierazi du zailtasun handiak dituela lana eta jarduera pertsonalak uztartzeko, hots, ehuneko 3,7 puntu gehiagok.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK** | **1.** Familia-bizitza eta lana uztartzea erraztea familien bizikidetzarako denbora handitzeko.<br>**2.** Hazkuntzan eta familiako erabakiak hartzeko garaian genero-erantzunkidetasuna sustatzea. | 5 GENERO BERDINTASUNA |

## HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK

Eibarko haur eta nerabeei egindako inkestak erakusten du **haur eta nerabeen eskubideak oso ezezagunak dituztela oraindik.** Soilik % 36,3k adierazi du ezagutzen dituela eta % 37,6k esan du norbaitek azaldu dizkiola.

Tratu ona dela eta, **% 61,9k uste du helduek ondo eta errespetuz tratatzen dutela**. Horrek erakusten du interakzio pertsonalen gaineko balorazioa hobea dela eskubideen gaineko ezagutzarena baino.

Udaleko bizitzan duten parte-hartzeari dagokionez, inkestaren emaitzek hobetzeko tartea dagoela erakusten dute. **% 27,2k uste du Eibarko Udalak beren iritziak kontuan hartzen dituela, baina % 58,9k du horretarako nahia**; hortaz, arrakala dago aurreikuspenen eta prozesu parte-hartzaileen parte izatearen pertzepzioaren artean.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK** | **3.** Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ezagutaraztea kanpainen eta hezkuntza-eragileen bidez.<br>**4.** Haur eta nerabeek Udaleko erabakietan parte hartzeko espazioak indartzea. | 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK |

## OSASUNA ETA KIROLA

### Osasuna

Diagnostikoaren barruan egindako inkestak norberak bere osasunaren inguruan egiten duen balorazioaren inguruko datuak bildu ditu, hala nola neke maila, gogo-aldartea, urduritasuna, min fisikoak edo lo egiteko arazoei buruz. Datuek osasunaren gaineko pertzepzio orokorra positiboa dela erakutsi arren, **emaitza adierazgarri batzuk daude ongizate fisiko eta mentalaren adierazleetan**: % 36,0k nekea sentitzen du normalean, % 25,1ek urduritasuna eta % 23,6k ohiko minak. Gainera, % 24,8k zailtasunak ditu lo egiteko; horrek balizko estres-arazoak islatu ditzake.

[5] Eustat. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2023.

**16 eta 18 urte bitarteko nerabeek dituzte emaitzarik okerrenak beren osasunaren autopertzepzioari dagokionez:** % 46,1 nekatuta sentitzen da normalean eta % 35,2k urduritasuna sentitzen du normalean. Gainera, lo egiteko arazoak eta ohiko minak komunagoak dira talde horretan, hortaz, baliteke estresa eta erronkak pilatu izana ongizate fisiko eta emozionalean.

Eibarko Haurren Hiri Laguna barne-koordinaziorako mahaiko udal sailek eta inkestatutako eragileek ere kezka adierazi dute horri dagokionez eta aipatu dute jarduera fisikoa sustatzen den arren, haur eta nerabeen buru osasuna hobetzeko baliabide publiko gutxiago daudela.

### Kirola

Ohitura osasungarriak hartzeak onurak ekartzen dizkio haur eta nerabeen bizitza-kalitateari, eta osasun fisikoko eta buru-osasuneko arazoak ekiditen laguntzen du. Inkestaren bidez jakin ahal izan da **Eibarko haur eta nerabeek astean 4,27 egunetan egiten dutela kirola batez beste. Adinarekin behera egiten du kirola egiteko ohiturak.** Haurrik gazteenak (10-12 urte) dira aktiboenak, astean 4,70 egunekin; aldiz, 16-18 urteko nerabeek gutxiagotan egiten dute kirola (3,85 egun astean).

**Eskola-kiroleko programari esker, 10-12 urteko haurrek kirol-diziplina gehiago praktikatzen dituzte**; igeriketa (% 15,3) eta judoa edo karatean (% 7,0), gainerako adin-taldeei gailentzen zaizkielarik. Aldiz, 16-18 urteko nerabeak gimnasiora joaten dira (% 41,3) eta parte-hartze txikiagoa dute kirol kolektiboetan, besteak beste, eskubaloian edo futbolean. Ziurrenik denbora libre gutxiago dutelako edo interesak aldatu egiten direlako.

Inkestaren arabera, kirola egitea zenbat gustatzen zaien adierazten duen balorazioa altua da, batez beste 8,36 puntu 10en gain. **Eibarko haur eta nerabe gehienek (% 60) gogoko duten kirola edo kirolak egiten dituzte** eta ez dute zailtasunik beste kirolen batera sartzeko. Alabaina, inkestatutako % 17k adierazi du ezin duela gogoko duen kirola egin ez dagoelako instalazio egokirik edo talderik Eibarren.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **OSASUNA ETA KIROLA** | **5.** Estresa eta buruko osasun-arazoei aurrea hartzea ongizatea eta ohitura osasungarriak sustatzeko estrategien bidez, nerabeentzako arreta psikologikoa indartzea eta arazo emozionalen hautemate goiztiarra hobetzea.<br>**6.** Ohitura osasungarriak sustatzea haurtzarotik eta, bereziki, kirola sustatzea nerabeen artean, adinak aurrera egin ahala kirola egiten jarraitzeko jarduera erakargarriak eskainiz. | 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA |

## HEZKUNTZA ETA EUSKARA

### Hezkuntza

Eibarren hamabi ikastetxe daude eta eibartarrak eta inguruko beste udalerrietako ikasleak joaten dira horietara. Ikastetxe horietako bederatzik dituzte 18 urtetik beherako ikasleak. **2022-2023 ikasturtean, 5.169 haur eta nerabe zeuden matrikulatuak** unibertsitatekoak ez diren Eibarko ikastetxeetan[6]. Egun, ikasleen **% 81ek D hizkuntza-ereduan ikasten du, % 16k A ereduan eta % 3k B ereduan.**

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak dira udalerriko ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleen erdia baino gehiago (% 49) eta % 23 bigarren hezkuntzako ikasleak. Lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleak % 20 eta % 8 dira, hurrenez hurren.

[6] Eustat. Eskola-jardueraren estatistika, 2023.

Inkestaren emaitzek **Eibarko haur eta nerabeek eskola-bizitzarekin duten asebetetze maila neurtua dela** islatzen dute**. % 60,2k berretsi du pozik dagoela bere ikastetxean** eta % 82,6k esan du lagunak dituela eskolan, ikastolan edo institutuan. Horrek esan nahi du harreman sozialak direla eskola arloan gehien baloratzen duten alderdia. Hala ere, **soilik % 50,4 dago asebeteta eskolan erabakiak hartzeko garaian duten parte-hartzearekin** eta irakasleen partetik entzunak izatearen pertzepzioa baxua da (% 60,8), bereziki gelan zer egin edo irteera bat egin erabakitzeko garaian, adibidez, beren iritzia aintzat hartzearekin lotuta (% 33,6).

### Euskara

Euskararen erabilerari dagokionez, inkestaren emaitzen arabera, **gaztelania da Eibarko haur eta nerabeen komunikatzeko hizkuntzarik gogokoena; % 66,3k aukeratzen du eta % 16,6k nahiago du euskara.** Gainera, lagunekin egiten duten euskararen erabilera mugatua da; % 34,6k “oso gutxi” erabiltzen du eta % 34,2k “gutxi”. Soilik % 12,1ek erabiltzen du “nahiko” edo “asko”. Horrek esan nahi du euskara adingabe batzuen bizitzetan presente dagoen arren, harreman informaletan egiten duten eguneroko erabilera txikiagoa dela.

Euskararen gaineko ezagutza eta erabilera ez dago oso zabalduta 10-12 urte bitarteko neska-mutilen artean, **eta nerabezaroan are gehiago egiten du behera, gaztelaniaren mesedetan.** 10-12 urte bitarteko haurren artean % 21,4k nahiago du euskaraz hitz egin eta % 25,8k maiztasun “arruntarekin” erabiltzen du bere lagunarteko harremanetan. Alabaina, euskararekiko lehentasuna % 13,5era jaisten da 13-15 urtekoen artean eta % 14,1era 16-18 urtekoen artean. Gainera, lagunarteko elkarrizketetan euskara “oso gutxi” erabiltzeko joera % 51,6ra iristen da 16-18 urte bitartekoen artean. Horrek esan nahi du erabilerak behera egiten duela pixkanaka adinarekin.

Euskara erabiltzea garrantzitsua iruditzen zaien haur eta nerabeen artean arrazoi nagusia hizkuntzaren biziraupena da; inkestatuen % 49k aipatu du. Beste arrazoietako batzuk dira euskal kulturarekiko atxikipena (% 13), beren maila hobetzeko hizkuntza praktikatzeko beharra (% 12) eta egungo ohitura linguistikoak aldatzea, gaztelaniari mesede egin baitiote (% 11).

Alta, lagunekin euskaraz hitz egitea garrantzitsua iruditzen ez zaien pertsonen ia erdiak (% 48) ez du arrazoi zehatzik eman. Arrazoia zehazten dutenen artean, gehien aipatzen diren motiboak gaztelaniaren erabilera eta ezagutza orokorra (% 10), euskararen tokiko izaera dela-eta balio mugatua duela pentsatzea (% 9) eta hizkuntza ez menperatzea (% 8) dira. Gainera, % 13k askatasun indibiduala argudiatu du; hau da, euskara derrigorrezkoa dela eskolan, baina ez lukeela hala izan behar hezkuntza-eremutik kanpo.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **HEZKUNTZA ETA EUSKARA** | **7.** Ikasleek eskola-bizitzan duten parte-hartzea hobetzea eta kolektibo horrek erabakietan parte hartzea.<br>**8.** Desberdintasunak ekiditeko, etxerako lanen karga arindu eta ikasteko metodo dinamikoagoak sustatzea.<br>**9.** Euskararen erabilera sustatzea haur eta nerabeen espazio informaletan eta aisialdian, eta motibatzeko estrategiak eta jolasak sustatzea, nerabeen artean euskararen eguneroko erabilera handitzeko. | 4 KALITATEZKO HEZKUNTZA<br>18 |

### HAUR ETA NERABE ZAURGARRIAK

Familientzako, haurrentzako eta nerabeentzako informazio-, balorazio- eta orientazio-zerbitzuak 302 egoera artatu zituen 2023an. **Adingabeen balizko babesgabetasun-egoerei lotutako 108 jakinarazpen** jaso ziren, erdiak ikastetxeen partetik. Ondorioz:

- 7 familia (10 haur) Foru Aldundira bideratu ziren egoera larria zelako.
- 17 familia Foru Aldundiak artatu zituen egoera larria zelako.
- 3 adingabe harreran familiatan hartu zituzten.
- 22 adingabe Foru Aldundiko egoitza-baliabideek hartu zituzten.

Egoera sozio-familiarra baloratu eta arrisku-adierazlerik dagoen aztertu ondoren, familiako esku-hartzea egiten da. Hala, **9 eta 12 urte bitarteko 64 seme-alaba dituzten 42 familia artatu dira familiako esku-hartzeetan.**

Bestalde, **inkestaren emaitzek erakusten dute Eibarko haur eta nerabeek diskriminazio- eta indarkeria-egoerak hautematen dituztela inguruan.** % 29,2k uste du pertsona batzuk etorkin izateagatik diskriminatzen dituztela eta % 30,9k uste du badela bere sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminazioa jasaten duenik. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari dagokionez, % 19,7k uste du haur eta nerabeek indarkeria jasaten dutela udalerrian.

Inkestako emaitzek erakusten dute gutxi gorabehera **bitik batek uste duela herrian gizonen eta emakumeen artean desberdintasuna dagoela eta gai hori kezkagarria dela.** Haur eta nerabeen % 46,6k uste du udalerrian berdintasuna dagoela. Hala ere, genero-desberdintasunekin, matxismoarekin eta indarkeria matxistarekin lotutako kezka apur bat handiagoa da, % 49,6koa. Horrek esan nahi du gai horiek ezinegona sortzen dutela haur eta nerabe askoren artean.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **HAUR ETA NERABE ZAURGARRIAK** | **10.** Babesgabetasun-arriskuan eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden haur eta nerabeen prebentzioa, hautemate goiztiarra eta esku-hartzea indartzen jarraitzea.<br>**11.** Berdintasunaren eta aniztasunaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea haur eta nerabeen artean, batez ere, matxismoaren aurkako borrokan, genero-berdintasunaren sustapenean eta jatorri, sexu eta genero dibertsitatearekiko errespetuan. |  |

## AISIALDI HEZITZAILEA, KULTURA, PLAZAK ETA PARKEAK

### Aisialdi hezitzailea

Eibarko udalak **aisialdi hezitzaileko zerbitzu eta programa iraunkorren eskaintza zabala du haur eta nerabeentzat.** Horien barruan daude adin-tarte bakoitzerako erreferentziazko zerbitzuak:

- **Jacinto Olabe ludoteka (5-11 urte):** Adin-taldeen arabera egituratutako zerbitzua eskaintzen du eta astelehenetik ostiralera funtzionatzen du, irailetik ekainera. Urteko izen-emateak 75 €-ko kostua du eta 2024-2025 ikasturtean 145 haur daude izena emanda.
- **Indianokua gaztelekua (12-17 urte):** Nerabeentzako espazio librea da eta asteartetik igandera dago irekita ikasturtean zehar. Ez da aldez aurretik izena eman beharrik eta erabilera doakoa da. 2024-2025 ikasturteko lehen lau hilabeteetan, 843 erabiltzaile izan dira batez beste hilean.

Hezitzaile egonkorrak dituzten zerbitzu horiez gain, Udaleko haurreria eta gazteria sailak haur, nerabe edo familientzako programak egiten ditu asteburuetan eta eskola-opor garaian, bereziki neguan, eta estalitako eta girotutako espazioak proposatzen ditu jolas-eremu babestuen falta arintzeko.

**2024ko udan, 718 haurrek eta 36 nerabek** hartu zuten parte guztira udako programa horietan.

## Kultura

Aisialdi hezitzaileaz gain, Eibarko haur eta nerabeek **kultur eskaintza oparoa** dute, tartean:

- Marrazketako eta pinturako udal-eskola: 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikastaroa.
- J.B. Gisasola udal musika-eskola: 7 urtetik aurrerako musika-irakaskuntza.
- Udal dantza-eskola: Sozializazioa sustatzen du 4 urtetik aurrerako pertsonen artean mugimenduaren eta gorputz-adierazpenaren bitartez.
- J. San Martin liburutegia: haurrentzako atal espezifikoa du.
- Legarre musika-sorkuntzarako espazioa: entseatzeko lokalak eta grabaketa-estudio bat eskaintzen ditu.

**Coliseo Udal Antzokiak** ere **zinemako eta arte eszenikoetako** programazioaren zati bat haur, nerabe eta familiei bideratzen die.

Eskuragarri dauden azken datuen arabera[7], **liburutegiko maileguen % 31 haur eta nerabeek egiten dute**. Datu positiboa da **15 urtetik beherakoak abonatuen % 23 soilik** direla kontuan hartuz**.** Emaitza horrek udalak, hainbat ekimenen bitartez, irakurketa adin goiztiarretatik sustatzeko egiten duen ahalegina islatzen du; hala nola haurren irakurketa-taldea, ikastetxeentzako liburutegi ibiltaria, larunbatetako ipuin-kontalaria eta haur eta nerabeei egokitutako liburuak erosteko politika.

Inkestaren emaitzek erakusten dute **Eibarko haur eta nerabeek balorazio nahiko positiboa egiten dutela udaleko aisialdi-espazioen eta baliabideen gainean** eta batez besteko puntuazioak **6,4 eta 8,3** artekoak dira 0tik 10erako eskalan. Hala ere, aisialdiko jardueren eskaintzaren gaineko pertzepzioa baxuagoa da; **soilik % 31,6k uste du jarduera nahikoa daudela eta % 34,8k adierazi du eskuragarri dauden jarduerak gogoko dituela.**

Ondoen baloratu dituzten espazioak **kiroldegiak eta igerilekuak** (7,5) eta **liburutegiak** (7,3) dira. Halaber, **zinemek eta antzokiek** (7,0) eta **plazak eta parkeek** (6,9) balorazio positiboak jaso dituzte. Bestalde, **aire librean jolasteko eremuek eta ludotekak/gaztelekuak** balorazio apur bat baxuagoak dituzte (6,7 eta 6,8 hurrenez hurren).

## Plazak eta parkeak

Eibarrek orografia malkartsua du eta eremu lau gutxi du. Ondorioz, urbanizazioa trinkoa da. Hiri-lurzoruaren % 3,4 soilik dira parkeak, lorategiak eta berdeguneak. Kopuru hori Debabarreneko eta Gipuzkoako[8] batezbestekoaren oso azpitik dago.

Inkestaren emaitzek erakusten dute **Eibarko haur eta nerabe gehienek aire libreko espazioak erabiltzen dituztela, baina egoeraren eta egokitzapenaren gainean duten pertzepzioa neurrizkoa da.** % 59,9k berretsi du plaza, parke edo kirol-eremuetara joan ohi dela eta % 82,7ri garrantzitsua iruditzen zaio haur eta nerabeek espazio horietan jolastea edo kirola egitea. Hala ere, **% 34,1ek soilik uste du ondo zainduta daudela eta % 42,9rentzat aisialdiaz gozatzeko beharrezko guztia dute.**

[7] Liburutegiaren Memoria 2023, Eibarko Udala.
[8] Udalmap, 2022.

Haur eta nerabeei lagunekin jolasteko eta gozatzeko Eibarren zeren falta nabari duten galdetzen diegunean, erantzunek behar eta lehentasun desberdinak islatzen dituzte. % 24k **kirola aire librean egiteko espazioen edo kantxen falta** aipatu du (eta ez soilik futbolerako), **% 19k kontsumo-aukera eskasia eta aniztasuna** aipatu ditu (denda kopurua eta aniztasuna, arropa-marka espezifikoak, fast food, El Corte Inglés moduko merkataritza guneak, etab.) eta % 13k **parke eta jolaserako eremu gehiago** aldarrikatu ditu, tartean, **existitzen diren espazioak hobetzea eta nerabeentzako espazio egokiak sortzea**, tirolinak edo adin horretara egokitutako jolasak txertatuz.

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
| --- | --- | --- |
| **AISIALDI HEZITZAILEA ETA KULTURA** | **12.** Haurrak eta nerabeak urte osoan zehar elkartzeko espazioak zabaltzea.<br>**13.** Parkeen eta plazen mantentze-lana eta egokitzapena hobetzea, nerabeentzako espazio erakargarriak eta egokituak sortuz.<br>**14.** Nerabeentzako aisialdiko aukerak handitzea kultur, kirol eta aisialdiko eskaintza dibertsifikatuz eta beraientzako jarduera erakargarriak diseinatuz. |  |

## HIRI EREMUA

Inkestaren emaitzek erakusten dute **Eibarko garbitasunari buruzko pertzepzioa baxua dela haur eta nerabeen artean eta zaratak kezka handiagoa sortzen du.** Haur eta nerabeen % 20,6k soilik uste du hiria garbi dagoela eta % 21,1ek uste du kaleak garbi eta zainduta daudela. Zaratari dagokionez, haur eta nerabeen % 34,0k uste du Eibar hiri zaratatsua dela. Horrek esan nahi du gehiengoarentzat (% 66) ez dela arazo handia.

Inkestak Eibarko segurtasunarekin lotutako hainbat alderdi baloratu ditu, tartean, errepideko segurtasuna eta herritarren segurtasuna. **Bideko segurtasunaren arloan, haur eta nerabeen % 54,6k uste du beraiek pasa ahal izateko autoek zebra-bideak errespetatzen dituztela.** Emaitza horrek adierazten du oraindik ere hobetzeko tartea dagoela oinezkoen segurtasun pertzepzioan. Balorazioa apur bat positiboagoa da mutilen artean (% 57,5) nesken artean baino (%51,4). Adinari dagokionez, ez dago desberdintasun handirik, baina 13-15 urte bitarteko taldea da pertzepziorik onena duena (% 55,9). Aldiz, 10-12 urteko haurrek (% 54,3) eta 16-18 urteko nerabeek (% 53,1) ez dute ikuspegi hain positiboa.

Herritarren segurtasunari dagokionez, **Eibarko haur eta nerabeen % 41,3k adierazi du seguru sentitzen dela udalerrian dabilenean.** Datu hori bereziki esanguratsua da gaueko argiztapenaren gaineko pertzepzioarekin batera aztertzen bada. Kaleetan argia egotea faktore garrantzitsua da espazio publikoko segurtasunarentzat eta inkestak adierazten du % 41,0k soilik uste duela gauean zehar nahiko argi dagoela. **Neskek pertzepzio negatiboagoa dute bi kasuetan: % 35,2k adierazi du Eibarren ibiltzeko garaian seguru sentitzen dela, mutilen kasuan % 47,4k;** eta argiztapenaren kasuan, % 38,5ek soilik uste du hiriak behar beste argi duela, mutilen kasuan % 43,8k.

Bestalde, mugikortasunari dagokionez, inkestatutako haur eta nerabeen % 47,4k autobusa edo trena erabiltzen du normalean, baina % 42,9k soilik adierazi du garraiobide horiek erabiltzea gogoko duela. Hain zuzen ere, **Eibarko haur eta nerabeen % 24ri lehentasunezkoa iruditzen zaio garraioak hobetzea eta egokitzea**, eta autobusen ordutegiak eta maiztasuna aldatzea, ibilgailuen tamaina handitzea eta zerbitzua auzo guztietara zabaltzea iradoki dute. Bigarrenik, % 18k bidegorri-sare handiagoa eskatu du, hiri-eremu osoan zehar garraio mota hori erabili ahal izateko. % 17k nabarmendu du argiztapena eta hiri-zerbitzuak hobetzea garrantzitsua dela, besteak beste, argiteria, segurtasuna, garbiketa eta eskaileren mantentze-lana. Bestalde, % 16ri garrantzitsua iruditzen zaio oinezko desplazamenduak hobetzea; espaloi zabalagoekin, zebra-bide gehiagorekin eta igogailu edo eskailera mekaniko gehiagorekin.

Garrantzitsua da nabarmentzea oinezkoen mugikortasunarekin, trafikoaren kudeaketarekin eta bideko segurtasunarekin lotutako proposamenak (hala nola zebra-bideak errespetatzea edo semaforoak koordinatzea) erantzun guztien % 39 direla. Horrek esan nahi du **haur eta nerabeek oinezko desplazamenduen gainean duten pertzepzioa ez dela guztiz positiboa**; izan ere, erantzun askotan agertzen dira “beldurra”, “segurtasunik eza”, “iluntasuna” edo “abandonua” terminoak.

Hori horrela, Eibarren bizitzeaz **gehien gustatzen zaizkien** alderdien artean hauek nabarmendu dituzte haur eta nerabeek:

- Herri handi edo hiri txiki batean bizitzea: zerbitzuen eta komertzioen aniztasuna, garraioa, leku guztietara oinez iristeko erraztasuna, ezagun asko izatea...
- Eibarko jendea eta giroa.

Eibarren bizitzeaz **gutxien gustatzen zaizkien** alderdien artean hauek nabarmendu dituzte:

- Segurtasun falta eta hiri-zerbitzu nahikorik ez izatea (argiteria, garbiketa, mantentze-lanak)
- Gizarte-bazterkeria eta bizikidetza-arazoak (gaueko zarata, petardoak, okupak, immigrazioa, etab.).

| DIMENTSIOA | ERRONKA | GJH |
|---|---|---|
| **HIRI EREMUA** | **15.** Espazio publikoak eta aisialdikoak (plazak, parkeak, berdeguneak...) haur eta nerabeen beharretara egokitzea, ingurune inklusibo eta seguruak sustatuz.<br>**16.** Kaleetako garbiketa indartzea eta espazio publikoen mantentze-lanak hobetzea, kutsadura akustikoa murrizteko eta hiri-eremuan bizikidetza hobetzeko neurriak gehituz.<br>**17.** Segurtasunaren gaineko pertzepzioa hobetzea, batez ere nesken eta nerabeen artean.<br>**18.** Mugikortasun jasangarrirako baliabideak handitzea, bidegorri gehiago eginez eta oinezkoentzako espazioak hobetuz. |   |

# 5. PLANAREN PRINTZIPIOAK ETA IKUSPEGIAK

Atal honetan Eibarko HNTParen oinarrian dauden funtsezko printzipioak eta ikuspegi estrategikoak jasotzen dira. Printzipioak plan guztiaren oinarria dira eta aurretik deskribatutako arau-esparruarekin bat datoz. Udaleko jarduketa guztiek haur eta nerabeen eskubideak behar bezala sustatzen eta babesten dituztela bermatzea da bere funtzioa, HEHk ezartzen duen moduan.

Aldiz, planeko esku-hartzeak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko modua orientatzen duten perspektibak dira ikuspegiak. Udal-politikak haur eta nerabeen errealitateetara egokitzeko eta ezarpen sentibera, koherentea eta eraldatzailea egiten dela bermatzeko gidak dira.

### Printzipio gidariak

HEHren funtsezko printzipioekin bat etorriz, **ez diskriminatzeko eskubidearen, haur eta nerabeen interes gorenaren, biziraupena eta erabateko garapena bermatzearen eta parte hartzeko eskubidearen** printzipioak jasotzen ditu HNTPak:

1. **DISKRIMINAZIORIK EZ JASATEKO ESKUBIDEA:** Adingabe guztiek dute eskubidea berdin tratatuak izateko eta inolako diskriminaziorik gabe bizitzeko. Erakundeek bermatu beharko dute, baita tokikoek ere, haur eta nerabe bat bera ere ez sentitzea baztertua edo zigortua bere jatorriagatik, generoagatik, identitateagatik, sexu-orientazioagatik, dibertsitate funtzionalagatik, erlijioagatik, iritziengatik edo beste egoera pertsonal edo sozial batzuengatik.

2. **HAUR ETA NERABEEN INTERES GORENAREN LEHENTASUNA:** Haurrei eragiten dien edozein neurri, arau edo erabakik haien ongizatea lehenetsi behar du. Horrek berekin dakar haur eta nerabeak eskubidedun subjektu gisa aitortzea, eragiten dieten erabakietan parte hartzen dutela ziurtatzea eta haien eskubideak eta beharrak ondoen babesten dituzten aukerak baloratzen direla bermatzea. Printzipio hau erabakiak hartzeko garaian zein politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan aplikatzen da.

3. **BIZIRAUPENA ETA ERABATEKO GARAPENA BERMATZEA:** Haur eta nerabeek eskubidea dute bizitzeko eta erabateko garapena izateko dimentsio guztietan: fisikoan, emozionalean, burukoan, sozialean, moralean eta espiritualean. Administrazio publikoek beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte haur eta nerabeen hazkunderako eta ongizaterako bizi-baldintza duinak eta egokiak bermatzeko.

4. **HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA:** Ezinbestekoa da haur eta nerabeek iritzia adierazteko eta entzunak izateko aukera izatea eragiten dieten gai guztietan. Parte-hartzeak haien garapen eta heldutasun mailara egokitua egon beharko du, informazioak ulergarria izan beharko du eta espazio seguru eta ordezkagarriak bermatu beharko dira eskubide hori benetan eta modu esanguratsuan gauzatzeko.

### Ikuspegiak

HNTPak bere ekintzak garatzeko eta ezartzeko garaian, arreta berezia jarriko du **genero-ikuspegian, dibertsitatean, ikuspegi intersekzionalean, euskararen sustapenean, jasangarritasunean, ingurumenean, erantzukizun publikoan, prebentzioan, inbertsio sozialean eta ahalduntzean.**

1. **Genero-ikuspegia.** HNTPak nesken eta mutilen arteko desberdintasunak egiturazkoak direla aitortzen du eta berdintasun erreal eta eraginkorra sustatzen du. Haurtzarotik tratu-berdintasuna, aukera-

berdintasuna eta eskubideak bermatzeko eta estereotipoen eta genero-diskriminazioen aurka egiteko daude diseinatuta ekintza guztiak.

2. **Aniztasuna.** Haur eta nerabe bakoitzak identitate positiboa eraikitzeko eskubidea duela defendatzen du, eta dibertsitatea errespetatu eta aldarrikatzen du bere forma guztietan. HNTPak konpromisoa hartzen du edozein bazterkeria motari aurre egiteko eta duintasunean, enpatian eta elkarren arteko onarpenean oinarritutako bizikidetza sustatzeko.
3. **Intersekzionalitatea.** Desberdintasunek ez dute modu isolatuan jarduten. Diskriminazioa hainbat faktoreren konbinazioa izan daiteke (jatorria, generoa, desgaitasuna eta egoera ekonomikoa, besteak beste). Horregatik, HNTPak intersekzio horiek kontuan hartzen dituen ikuspegia aplikatuko du, erantzun egokiagoak eta eraginkorragoak emateko.
4. **Euskara.** HNTPak neurriak ezartzen ditu haur eta nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko eta normalizazioa bultzatzeko. Horretarako, bi hizkuntza ofizialetarako sarbide parekidea bermatuko du eta parte-hartze aktiboa bultzatuko du haur eta nerabeen ingurunean euskararen erabilera soziala sustatzeko.
5. **Ingurumeneko jasangarritasuna.** HNTParen ekintza guztiek ingurumenarekiko errespetua hartuko dute kontuan, eta ingurumeneko inpaktua murrizten eta erantzukizun ekologikoan hezten ahaleginduko dira. Helburua ingurumena babestea da, ez ondare gisa soilik, baizik eta haur eta gazteen ongizate faktore gisa ere.
6. **Erantzukizun publikoa.** HNTPa garatzeko garaian, kontuak emateko eta gardentasuna bermatzeko konpromiso sendoa hartuko da oinarritzat. Herritarrek egindako ekintzen, erabilitako baliabideen eta lortutako emaitzen gaineko informazio argia, ulergarria eta irisgarria izango dute eskuragarri. Gainera, planaren etengabeko ebaluazioa bermatuko da, efizientziaren, legaltasunaren eta etengabeko hobekuntzaren irizpideak jarraituz.
7. **Prebentzioa.** HNTPak ikuspegi prebentiboa du bere ekintza guztietan, eta aurre hartzea eta arreta goiztiarra funtsezkoak dira haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea babesteko. Arrisku-egoerak, bazterkeria edo eskubide-urraketak gertatzea ekiditeko esku-hartzeak lehenetsiko dira eta modu proaktiboan jardungo da horiek eragiten dituzten faktoreen gainean.
8. **Inbertsio soziala.** Haurren arloko politikak elementu garrantzitsuak dira aukera-berdintasuna hobetzeko eta jatorriaren desorekak arintzeko. Hala, HNTParen ekintzak eta garapena zehazteko garaian, haur eta nerabeei zuzendutako politikak epe luzerako inbertsio estrategikotzat hartuko dira. Egun haur eta nerabeen ongizatean, hezkuntzan, osasunean eta parte-hartzean inbertitzeak herri kohesionatuagoa, produktiboagoa eta bidezkoagoa ekarriko du etorkizunean.
9. **Ahalduntzea.** Legearen arabera haur eta nerabeak eskubidedun subjektu aktiboak diren arren, gizarteak ez die beti jarduteko gaitasun hori aitortzen. Horregatik, HNTP hau eta bere ekintzak haur eta nerabeen gaitasunak eta autonomia indartzera daude bideratuak, ezinbesteko tresnak baitira horiek eraldaketa sozialerako.

# 6. HELBURUAK, JARDUTEKO ILDOAK ETA EKINTZAK

Eibarko haur eta nerabeen errealitateari buruzko diagnostikoan identifikatutako erronkak kontuan hartuz, eta haur eta nerabeen erabateko garapena eta bizi-kalitatea sustatzen jarraitzeko konpromisoarekin, **6 helburu, 16 jarduteko ildo eta 93 ekintza** aurkeztuko dira ondoren:

| HELBURUAK | JARDUTEKO ILDOAK | EKINTZEN KOPURUA |
|---|---|---|
| **1. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea** | 1.1 Familiako eta laneko bizitza uztartzen laguntzeko politikak eta zerbitzuak sustatzea. | 2 |
| | 1.2 Genero-erantzunkidetasunari buruz sentsibilizatzea hazkuntzan eta familiako erabakiak hartzeko garaian. | 1 |
| | 1.3 Familiek hazkuntzan duten rola indartzea, gurasotasun positiboa sustatuz. | 8 |
| **2. Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea** | 2.1. Haur eta nerabeek udalerriko bizitzan parte hartzeko espazio berriak indartzea eta sortzea. | 2 |
| | 2.2. Haur eta nerabeek beren eskubideak ezagutzen dituztela eta gauzatzen dituztela bermatzea, berdintasunaren eta dibertsitatearen balioak sustatuz. | 9 |
| **3. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean** | 3.1 Haur eta nerabeen zaurgarritasun-egoerak arrisku-egoerak eta babesgabetasun-egoerak goiz hautemateko eta arreta goiztiarra eskaintzeko etengabeko errefortzua. | 7 |
| | 3.2 Ohitura osasungarriak sustatzea hazkundearen etapa guztietan eta osasun mentalari aurrea hartzeko eta sustatzeko estrategiak. | 6 |
| | 3.3 Haur eta nerabeentzako erakargarriak diren eta adin goiztiarretatik jarduera fisikoa egiten jarraitzea sustatzen duten kirol-programak diseinatzea. | 5 |
| | 3.4 Mugikortasun jasangarrirako azpiegitura garatzea eta ingurumeneko kontzientziazioa sustatzea. | 10 |
| **4. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz** | 4.1 Ingurune informaletan euskararen erabilera indartzeko motibazio-estrategiak eta jarduera ludikoak sustatzea, adin goiztiarretatik euskara erabiltzeko ohitura har dezaten. | 13 |
| | 4.2 Familiak euskara ikasteko prozesuan eta erabileran inplikatzea, familientzako sentsibilizazio-programen eta jardueren bitartez. | 6 |
| **5. Aisialdirako eta denbora libreko aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz** | 5.1 Haurrak eta nerabeak elkartzeko espazioak eta zerbitzuak sustatzea eta urte osoan erabilgarriak izatea. | 7 |
| | 5.2 Kulturako eta aisialdiko eskaintza erakargarria eta askotarikoa diseinatzea. | 4 |
| | 5.3 Parkeak, plazak eta espazio publikoak hobetzea, haur eta nerabeentzako ingurune seguru eta inklusiboak bermatzeko. | 4 |
| **6 Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea** | 1.1 Haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko lan-espazio bateratuak sortzea. | 8 |
| | 1.2 Haur eta nerabeen ikuspegian oinarritutako tokiko politikak diseinatzea. | 1 |
| | **GUZTIRA** | **93** |

Plan honen barruan proposatutako helburuak eta jarduteko ildoak bat datoz diagnostikoan identifikatutako erronkekin, Haurren Hiri Lagunak (HHL) ekimenaren helburu eta osagarriekin eta 2030 Agendako GJHekin:

| 1. helburua. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| 1.1. Familiako eta laneko bizitza uztartzen laguntzeko politikak eta zerbitzuak sustatzea. | 1. Familia-bizitza eta lanekoa uztartzea familien bizikidetzarako denbora handitzeko. | 1. Besteek norbera baloratzeko, errespetatzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea<br>5. Haur izateko eskubidea | 1.2. Diskriminatzaileak ez diren eta berdintasunean oinarrituta dauden tokiko politika eta plangintza espezifikoak. |  |
| 1.2 Genero-erantzunkidetasunari buruz sentsibilizatzea hazkuntzan eta familiako erabakiak hartzeko garaian. | 2 Genero-erantzunkidetasuna sustatzea hazkuntzan eta familiako erabakiak hartzeko garaian.<br>eta<br>8. Desberdintasunak ekiditeko, ikasteko metodo dinamikoagoak sustatu eta etxerako lanen karga berrorekatzea. | | | |
| 1.3 Familiek hazkuntzan duten rola indartzea, gurasotasun positiboa sustatuz. | | | 5.2. Familiako bizitza | |

| 2. helburua. Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| 2.1 Haur eta nerabeek udalerriko bizitzan parte hartzeko espazio berriak indartzea eta sortzea. | 4. Haur eta nerabeek udaleko erabakietan parte hartzeko dituzten espazioak indartzea.<br>eta<br>7. Ikasleek eskola-bizitzan duten parte-hartzea hobetzea eta kolektibo horrek erabakietan parte hartzea | 1. Besteek norbera baloratzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea<br>2. Norbere iritzia aintzat hartzeko eskubidea | 1.1. Haurren eskubideak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ezagutaraztea.<br>2.1. Haurrek parte-hartze nabarmena izatea Haurren Partaidetzarako Organoaren eta beste espazio batzuen bitartez.<br>2.2. Haurrak protagonista izatea |  |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| 2.2 Haur eta nerabeek beren eskubideak ezagutzen dituztela eta gauzatzen dituztela bermatzea, berdintasunaren eta dibertsitatearen balioak sustatuz. | 11. Berdintasunaren eta aniztasunaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea haur eta nerabeen artean, batez ere, matxismoaren aurkako borrokan, genero-berdintasunaren sustapenean eta jatorri, sexu eta genero dibertsitatearekiko errespetuan. | | 1.1. Haurren eskubideak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ezagutaraztea.<br><br>1.2. Diskriminatzaileak ez diren eta berdintasunean oinarrituta dauden tokiko politika eta plangintza espezifikoak. | |

| 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| 3.1 Haur eta nerabeen zaurgarritasun-egoerak arrisku-egoerak eta babesgabetasun-egoerak goiz hautemateko eta arreta goiztiarra eskaintzeko etengabeko errefortzua. | 10 Babesgabetasun-arriskuan eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden haur eta nerabeen prebentzioa, hautemate goiztiarra eta esku-hartzea indartzen jarraitzea. | 1. Besteek norbera baloratzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea<br><br>3. Ezinbesteko zerbitzuetarako eskubidea<br><br>5. Haur izateko eskubidea | 1.3. Komunitate inklusibo eta babesleak, kolektibo zaurgarriei eta egoera jakin batzuei arreta jarriz.<br><br>3.1. Pobreziaren eta sarbide-desoreken aurkako borroka | |

| 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| | | | 5.2. Familiako bizitza | |
| 3.2 Hazkundearen etapa guztietan ohitura osasungarriak sustatzea eta buru osasuna prebenitzeko eta sustatzeko estrategiak. | 5. Estresa eta buruko osasun-arazoei aurre hartzea ongizatea eta ohitura osasungarriak sustatzeko estrategien bidez, nerabeentzako arreta psikologikoa indartzea eta arazo emozionalen hautemate goiztiarra hobetzea. eta 8. Desberdintasunak ekiditeko, ikasteko metodo dinamikoagoak sustatu eta etxerako lanen karga berrorekatzea. | | 1.2. Diskriminatzaileak ez diren eta berdintasunean oinarrituta dauden tokiko politika eta plangintza espezifikoak. | |
| 3.3 Haur eta nerabeentzako erakargarriak diren eta adin goiztiarretatik jarduera fisikoa egiten jarraitzea sustatzen duten kirol-programak diseinatzea. | 6. Ohitura osasungarriak sustatzea haurtzarotik eta, bereziki, kirola sustatzea nerabeen artean, adinak aurrera egin ahala kirola egiten jarraitzeko jarduera erakargarriak eskainiz. | | 1.3. Komunitate inklusibo eta babesleak, kolektibo zaurgarriei eta egoera jakin batzuei arreta jarriz. 3.3. Osasuna eta Elikadura. 5.1. Instalazio kulturaletarako, aisialdirako eta kirolerako sarbidea. | 3 |
| 3.4 Mugikortasun jasangarrirako azpiegitura garatzea eta ingurumeneko kontzientziazioa sustatzea. | 18. Mugikortasun jasangarrirako baliabideak handitzea, bidegorri gehiago eginez eta oinezkoentzako espazioak hobetuz. | 4. Ingurune seguru eta garbietan bizitzeko eskubidea | 4.2. Etxebizitza, hiri-plangintza eta mugikortasun independente eta segurua haurrentzat. | 4, 11, 13 |

| 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| | | | 4.3. Haurren aldeko ekintza klimatikoa | |

| 4. helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| 4.1 Ingurune informaletan euskararen erabilera indartzeko motibazio-estrategiak eta jarduera ludikoak sustatzea, adin goiztiarretatik euskara erabiltzeko ohitura har dezaten. | 9. Euskararen erabilera sustatzea haur eta nerabeen espazio informaletan eta aisialdian eta motibatzeko estrategiak eta ludikoak sustatzea, nerabeen artean euskararen eguneroko erabilera handitzeko. | 1. Besteek norbera baloratzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea<br><br>5. Haur izateko eskubidea | 1.3. Komunitate inklusibo eta babesleak, kolektibo zaurgarriei eta egoera jakin batzuei arreta jarriz<br><br>5.3. Kultura eta jolasa |  |
| 4.2 Familiak euskara ikasteko prozesuan eta erabileran inplikatzea, familientzako sentsibilizazio-programen eta jardueren bitartez. | 9. Euskararen erabilera sustatzea haur eta nerabeen espazio informaletan eta aisialdian eta motibatzeko estrategiak eta ludikoak sustatzea, nerabeen artean euskararen eguneroko erabilera handitzeko. | | 5.2. Familiako bizitza<br><br>5.3. Kultura eta jolasa | |

| 5. helburua. Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduteko ildoak** | **Diagnostikoaren erronka** | **HHLren helburua** | **HHLren osagarria** | **GJH** |
| 5.1 Haurrak eta nerabeak elkartzeko espazioak eta zerbitzuak sustatzea eta urte osorako irisgarriak izatea. | 12 Haurrak eta nerabeak urte osoan zehar elkartzeko espazioak zabaltzea. | 5. Haur izateko eskubidea | 5.1. Instalazio kulturaletarako , aisialdirako eta kirolerako sarbidea |  |
| 5.2 Kulturako eta aisialdiko eskaintza erakargarria eta askotarikoa diseinatzea. | 14. Nerabeentzako aisialdiko aukerak handitzea kultur, kirol eta aisialdiko eskaintza dibertsifikatuz eta beraientzat jarduera erakargarriak diseinatuz. | | 5.3. Kultura eta jolasa. | |

**5. helburua. Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz**

| Jarduteko ildoak | Diagnostikoaren erronka | HHLren helburua | HHLren osagarria | GJH |
|---|---|---|---|---|
| 5.3 Parkeak, plazak eta espazio publikoak hobetzea, haur eta nerabeentzako ingurune seguru eta inklusiboak bermatzeko. | 13. Parkeen eta plazen mantentze-lana eta egokitzapena hobetzea, nerabeentzako espazio erakargarriak eta egokituak gehituz.<br>eta<br>15. Espazio publikoak eta aisialdikoak (plazak, parkeak, berdeguneak...) haur eta nerabeen beharretara egokitzea, ingurune inklusibo eta seguruak sustatuz.<br>eta<br>• 16. Kaleetako garbiketa indartzea eta espazio publikoen mantentze-lanak hobetzea, kutsadura akustikoa murrizteko eta hiri-eremuan bizikidetza hobetzeko neurriak gehituz.<br>eta<br>17. Segurtasunaren gaineko pertzepzioa hobetzea, batez ere nesken eta nerabeen artean. | 4. Ingurune seguru eta garbietan bizitzeko eskubidea | 4.2. Etxebizitza, hiri-plangintza eta mugikortasun independente eta segurua haurrentzat. | 11 |

**6. helburua. Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea**

| Jarduteko ildoak | Diagnostikoaren erronka | HHLren helburua | HHLren osagarria | GJH |
|---|---|---|---|---|
| 6.1 Haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko lan-espazio bateratuak sortzea. | (zeharkakoa) | T.2. Gobernantza | - | 17 |
| 6.2 Haur eta nerabeen ikuspegian oinarritutako tokiko politikak diseinatzea. | (zeharkakoa) | T.1. Egiturak eta politikak | - | |

## 1. HELBURUA Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea

Eibarko haur eta nerabeen diagnostikoak familiei laguntzearen garrantzia nabarmentzen du, haur eta nerabeak zaintzeko, hezteko eta babesteko garaian. Familiako harremanak positiboak diren arren, kontziliazioaren erronkak direla eta, zailtasunak daude elkarrekin kalitatezko denbora paratzeko. Horregatik, planaren helburu honek **laneko eta familiako bizitza** uztartzen laguntzeko politikak eta zerbitzuak sustatu nahi ditu, haur eta nerabeen ongizatea bermatzeko haien familia-inguruneen baldintzak ere hobetu behar direla aitortuz.

Gainera, lehentasunezkoa da **genero-erantzunkidetasuna sustatzea familia-ingurunean**, heldu guztiek inplikazio parekidea izan dezaten zaintza-lanetan eta eguneroko bizitzarekin lotutako erabakiak hartzeko garaian.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz **HEHren "1. Besteek norbera baloratzeko, errespetatzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea" eta "5. Haur izateko eskubidea"** helburuekin eta **GJHen** helburu hauekin:

- *4.2. Hemendik 2030era, haur guztiek arreta- eta garapen-zerbitzuetarako sarbidea izatea lehen haurtzaroan eta kalitatezko eskolaurreko irakaskuntza jasotzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.*
- *5.4. Ordaindu gabeko etxeko zaintza eta lana zerbitzu publikoen, babes sozialeko azpiegituren eta politiken bidez eta etxeko eta familiako ardura partekatua bultzatuta aitortzea eta balioestea, herrialde bakoitzari dagokion moduan.*
- *5.5. Emakumeen parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra eta lidergorako aukera-berdintasuna bermatzea bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko erabaki maila guztietan.*
- *10.2. Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomikoa eta politikoa sustatzea eta bultzatzea, adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza gorabehera.*
- *10.3. Aukera-berdintasuna bermatzea eta desberdintasunak murriztea emaitzetan; lege, politika eta jarduketa diskriminatzaileak kenduz eta lege, politika eta neurri egokiak sustatuz horri dagokionez.*

Ekintzak hiru jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 1.1 Familiako eta laneko bizitza uztartzen laguntzeko politikak eta zerbitzuak sustatzea.
- 1.2 Genero-erantzunkidetasuna sustatzea hazkuntzan eta familiako erabakiak hartzeko garaian.
- 1.3 Familiek hazkuntzan duten rola indartzea, gurasotasun positiboa sustatuz.

**1. helburua. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea**

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.1** | **Etxez etxeko laguntzarako zerbitzua** | Gurasoei zaintza lanetan laguntzen zaie, eskolara gerturatu edota eskolan kanpoko ekintzetara laguntzeko zerbitzua da, haien familiako ahaideek lana, formakuntzagatik ezin badute. | Gizarte-ekintza | Urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.1** | **Haurreskolak** | 0 eta 2 urte arteko haurrentzako haur-eskola publikoak, familiei hezkuntza eta laguntza zerbitzua ematea helburu duenak: Orbea, Arrateko Andra Mari eta Amaña. | Gizarte-ekintza | Urtero | Haurrak (0-5); Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.2** | **"Itsaspeko bihotzak" areto literarioa familientzat** | Genero-berdintasuna jorratzen du euskal haur-literaturaren bidez. Argitaratutako lanen artean hezkidetza-parametro pedagogikoak | Berdintasuna; Liburutegia | Urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |

## 1. helburua. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | dituztenak hautatzen dira eta eskoletan egiten den lanketarekin uztartuta, familientzako saio bat antolatzen da | | | | |
| **1.3** | **Guraso eskola** | "Lehen hezkuntzako mahaia"k abiatutako eskola segregazioari buruzko hausnarketaren ildotik, Urkizu ikastetxean abiatu da proiektu pilotua. Beste eskoletara zabaltzea aurreikusi da | Gizarte-ekintza | Urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.3** | **Harrera hezkuntzan** | LH-ko eskola publikoetan familia etorri berrientzat harrera lantzea (gida eman eta formakuntzak eskaini guraso eta irakasleei) | Gizarte-ekintza: immigrazioa | Urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.3** | **Zapatuetako tailerrak** | 5, 6 eta 7 urteko haurrak gurasoekin batera eskulan tailerrak larunbat goiz eta arratsaldeetan | Haurreria eta Gazteria | Urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.3** | **"Treba Gurasoak"** | Gai ezberdinetako hitzaldiak, gurasoentzat zuzenduak (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean) | Haurreria eta Gazteria | 2025 | Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| **1.3** | **"Hazi hezi" aldizkaria harpidetza opari** | Ume eskolaratu berrien familiei urtebeteko harpidetza oparitzen zaie gurasoentzako aholku aldizkaria | Euskara | 2026, 2027, 2027 | Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.3** | **"Gurasoak martxan"** | Gurasoei seme-alaben heziketa eta hazkuntzarako laguntza sustatzeko taldeak. Guraso gaikuntzarako tailer ezberdinak eskaintzen dira arriskuzko, zein prebentzio egoerak lantzeko. | Gizarte-ekintza | Urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| **1.3** | **Pertsona eta familientzat atentzio zerbitzua** | Gizarte-ekintzatik familientzat zuzendutako informazioa, jarraipena | Gizarte-ekintza | Urtero | Herritarrak | |

| **1. helburua. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| | | eta atentzioa eskaintzea. | | | | |
| **1.3** | **Zailtasun egoeran aurkitu daitezkeen haur, nerabe eta familiei zuzendutako esku hartze komunitarioa** | Arriskuzko egoerak kudeatzen dituen kapazitaziorako tailerrak eta ohitura osasuntsuak lantzen dituen programa da. | Gizarte-ekintza | Urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; |  |

## 2. HELBURUA Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea

Parte-hartzea haur eta nerabeen funtsezko eskubidea da eta herritar gisa garatzeko oinarrizkoa da. Diagnostikoak erakusten du haur eta nerabeek entzunak izan nahi duten arren eta eragiten dieten erabakietan parte hartu nahi duten arren, Udalak ez diela beti nahikoa entzuten. Horregatik, helburu honek **existitzen diren espazioak indartzea eta haur eta nerabeek parte hartzeko egitura berriak sortzea** proposatzen du, tokiko bizitzan presentzia erreal eta eraginkorra izan dezaten bermatzeko, haien adinera eta heldutasunera egokituta.

Halaber, beharrezkoa da **haur eta nerabeen eskubideak zabaltzeko eta sustatzeko** aurrerapausoak ematea, ezagutu, ulertu eta egikaritu ditzaten bermatzeko. Horretarako, berdintasuna, aniztasuna eta tratu ona sustatzeko ekintzak bultzatuko ditu HNTPak, funtsezko zutabeak baitira horiek herritartasun aktibo eta erantzunkidea izateko.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz HEHren **"1. Besteek norbera baloratzeko, errespetatzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea"** eta **"2. Entzuna izateko eskubidea"** helburuekin eta **GJHen** helburu honekin:

- *4.7. Hemendik 2030era bitarte ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea; besteak beste, garapen jasangarrirako hezkuntzaren eta bizimodu jasangarrien, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako kultura sustatzearen, munduko herritartasunaren eta kultur aniztasuna baloratzearen eta garapen jasangarrirako kulturari ekarpena egitearen bitartez.*
- *5.5. Emakumeen parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra eta lidergorako aukera-berdintasuna bermatzea bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko erabaki-maila guztietan.*
- *5.c. Politika eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea sustatzeko maila guztietan.*
- *10.2. Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomikoa eta politikoa sustatzea eta bultzatzea, adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza gorabehera.*
- *16.7 Maila guztietan beharrei erantzuten dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkagarriak hartzea bermatzea.*

Ekintzak bi jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 2.1 Haur eta nerabeek udalerriko bizitzan parte hartzeko espazio berriak indartzea eta sortzea.
- 2.2 Haur eta nerabeek beren eskubideak ezagutzen dituztela eta gauzatzen dituztela bermatzea, berdintasunaren eta dibertsitatearen balioak sustatuz.

**2. helburua. Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea**

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2.1** | **Haurren udal kontseilua** | Herriko ikastetxe guztietako ordezkariak biltzen dituen Haurren kontseilua 2025eko otsailean sortu da. LH 4 eta 5. mailako 26 neska-mutilek osatzen dute. | Gizarte-ekintza | Urtero | Haurrak (6-11); | 10, 16 |
| **2.1** | **Eskola agenda 2030: Udalbatza txikia** | LH4tik gorako zazpi ikastetxetako ikasleak eta Udal ordezkari politikoak biltzen dituen espazioa. | Ingurumena | Urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | 10, 16 |
| **2.2** | **Haurren eskubideen mundu eguneko animazioa** | Azaroaren 20aren bueltan haur eta nerabeentzat animazioren bat antolatzen da urtero (ipuin kontaketa adibidez) | Gizarte-ekintza; Liburutegia | Urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | 4, 10 |
| **2.2** | **"Itsaspeko Bihotzak" areto literarioa haurrentzat** | Genero-berdintasunaren gaia jorratzen du euskal haur-literaturaren bidez. Argitaratutako lanen artean (literatura, ilustrazioa, jostea, artisautza, ikus-entzunezkoak), hezkidetza-parametro pedagogikoak dituztenak hautatzen dira. Liburu zehatz bat aitzakia hartuta, hezkidetzarekin zuzenean lotutako gai bat landuko da ikastetxeetako LH 4-ko taldeekin. | Berdintasuna; Liburutegia | Urtero | Haurrak (6-11); | 4, 5, 10 |
| **2.2** | **Erakusketak eta bisita gidatuak** | Egutegi feministaren baitan, Andretxean antolatzen diren erakusketen bisita gidatuak. Hauetan, herriko ikastetxeek parte-hartu dezakete. | Berdintasuna | Urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | 4, 5, 10 |
| **2.2** | **Jabetze Eskolako ikastaroak eta tailerrak** | Prestakuntza feministarako gune bat da, irekia, hurbila, irisgarria eta anitza, non herriko neska gazteen parte-hartzea hainbat esparrutan aktiboki erraztuko duten prozesuak gauzatzea ahalbidetzen den. | Berdintasuna | Urtero | Nerabeak (12-18); Herritarrak | 4, 5, 16 |
| **2.2** | **"Maistrak" liburutegi espezializatua** | Berdintasunean hezteko haur eta gazteentzako ipuin eta kontakizunak eskaintzen ditu, gai ugari jorratuz: genero-rolak eta -estereotipoak, sexu-aniztasuna, familia-ereduen aniztasuna, autoestimua, genero-indarkeriaren prebentzioa, emakumeak historian ikusaraztea, maskulinitate berriak, LGTBI+fobiaren aurkako borroka, gure imajinarioa eraikitzeko modu berdinzaleagoak | Berdintasuna | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | 4, 5, 10 |

**2. helburua. Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea**

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | planteatuz, bai maila indibidualean bai kolektiboan. | | | | |
| **2.2** | **Sexu heziketa programa ikastetxeetan** | Emakumeen eta gizonen eredu zurrun eta estereotipatuak aldatzeko bidea hezkuntza integrala da eta horregatik Eibarko Udaleko Berdintasun zerbitzuak urteak daramatza sexu heziketa aparta eta integralerako programa herriko ikastetxe guztiei eskainiz LH, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek erreferente positiboak izan ditzaten. | Berdintasuna | Urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **2.2** | **Andretxea-SEX sexu aholkularitza zerbitzua** | Hamabostero, 17:00etatik 19:00etara eskaintzen den aholkularitza sexualerako zerbitzua. Doakoa. Ikastetxeetan eskaintzen den Sexu Heziketa programari lotua (sexu hezitzaile bera da). 10 eta 25 urte bitarteko gazteentzat (biak barne). | Berdintasuna | Urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **2.2** | **Udal web orrian Haurren Kontseiluari eskainitako atala sortu** | Kontseiluari buruzko informazio orokorra (testuak, argazkiak, bideoak…) eta beharrezkoa den dokumentazioa argitaratu | Gizarte-ekintza; Komunikazioa | 2025 | Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| **2.2** | **Haur, nerabe eta familien beharrei zuzendutako sentsibilizazioa** | Sentsibilizazio kanpainak herritarrentzat zuzenduta. Haur, nerabe eta familiek dituzten beharrei zuzenduta. | Gizarte-ekintza | urtero | Herritarrak | |

## 3. HELBURUA Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean

Haur eta nerabeen ongizate integrala bermatzeak haien osasun fisiko zein emozionala kontuan hartzea eta garapen osasungarria sustatzeko inguruneak sortzea esan nahi du. Eibarko diagnostikoak agerian uzten du arrisku- edo kalteberatasun-egoeretan hautemate goiztiarra indartzeko beharra, bai eta buruko osasunean arreta handiagoa jartzeko beharra ere, nerabezaroan batez ere. Helburu honek **esku-hartze prebentibo eta proaktiboa** egiteko konpromisoa jasotzen du, balizko zailtasunak goiz identifikatzeko eta hazkunde-etapa bakoitzaren beharrei erantzun koordinatu, irisgarri eta egokiak ematea bermatzeko.

Gainera, Planak **bizi-ohitura osasungarriak** sustatzen ditu adin goiztiarretatik, jarduera fisiko erregularra, elikadura orekatua, atseden egokia eta osasun emozionalaren zaintza barne. Horretarako, kirol-programa erakargarri eta egingarriak diseinatzea lehenetsiko da eta mugikortasun aktiboa eta ingurunea errespetatzen duena sustatzeko hiri-azpiegitura garatuko da.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz **HEHren "1. Besteek norbera baloratzeko, errespetatzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea"; "3. Ezinbesteko zerbitzuetarako eskubidea"; "4. Ingurune seguru eta garbietan bizitzeko eskubidea" eta "5. Haur izateko eskubidea"** helburuekin eta **GJHen** helburu hauekin:

- *1.3. Babes sozialerako sistema eta neurri egokiak ezartzea estatu mailan guztientzat, gutxieneko mailak barne, eta 2030era bitarte pertsona txiro eta zaurgarrien estaldura zabala lortzea.*
- *3.4 Hemendik 2030era bitarte, heren bat murriztea kutsakorrak ez diren gaixotasunek eragindako heriotza goiztiarrak, prebentzioaren eta tratamenduaren bitartez eta buruko osasuna eta ongizatea sustatuz*
- *3.5 Mendekotasuna sortzen duten substantzien prebentzioa eta indartzea eta gehiegizko kontsumoa tratatzea, estupefazienteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.*
- *3.7. Hemendik 2030era bitarte, sarbide unibertsala bermatzea osasun sexual eta ugalketa-osasun zerbitzuetan, familia-plangintzarako zerbitzuetan, informazio-zerbitzuetan eta hezkuntza-zerbitzuetan barne, eta ugalketa-osasuna estrategia eta programa nazionaletan integratzea.*
- *4.7. Hemendik 2030era bitarte ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea; besteak beste, garapen jasangarrirako hezkuntzaren eta bizimodu jasangarrien, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako kultura sustatzearen, munduko herritartasunaren eta kulturaniztasuna baloratzearen eta garapen jasangarrirako kulturari ekarpena egitearen bitartez.*
- *11.7. Hemendik 2030era, berdeguneetarako eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbide unibertsala eskaintzea, batez ere emakumeentzat, haurrentzat, adineko pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat.*
- *13.3. Hezkuntza, sentsibilizazioa eta pertsonen eta erakundeen gaitasuna hobetzea, klima-aldaketa arintzeari, horretara egokitzeari, bere efektuak murrizteari eta alerta goiztiarrari dagokionez.*

Ekintzak lau jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 3.1 Haur eta nerabeen zaurgarritasun-egoerak arrisku-egoerak eta babesgabetasun-egoerak goiz hautemateko eta arreta goiztiarra etengabe indartzea.
- 3.2 Ohitura osasungarriak sustatzea hazkundearen etapa guztietan eta osasun mentalari aurrea hartzeko eta sustatzeko estrategiak.
- 3.3 Haur eta nerabeentzako erakargarriak diren eta adin goiztiarretatik jarduera fisikoa egiten jarraitzea sustatzen duten kirol-programak diseinatzea.
- 3.4 Mugikortasun jasangarrirako azpiegitura garatzea eta ingurumeneko kontzientziazioa sustatzea.

| **3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| **3.1** | **Bidelagun: arreta psiko-sozialerako zerbitzua** | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako jatorri atzerritarra duten eibartarrentzako zerbitzua. Norbanako eta familientzat. Zailtasunak dituztenean migrazio edota ber elkartze prozesuetan | Gizarte-ekintza: immigrazioa | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; | |
| **3.1** | **"Umeak eskolara" eta ikasleei laguntzak** | Diru laguntza deialdia. Herriko familiei eskola-gastuetan laguntzea, bai eta merkataritzari ere, udalerrian eskola-materiala erosteko 60 €-ko bonuarekin. | Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza; Pegora | urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| **3.1** | **Esku-hartze familiarra** | Babesgabetasun prebentzio eta detekziorako programa, familiak artatzen dituenak familiei heziketa eta zaintza osasuntsuak sustatzeko tresnak lantzen diren. | Gizarte-ekintza | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; | |

## 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **3.1** | **Ingurumen irekia** | Babesgabetasun egoerak detektatu; esku hartze eta genero indarkeria prebentziorako ekintzak landu; zaurgarritasun egoera pairatzen duten familien adin txikikoei kirol eta aisialdirako ekintzak eskaintzen dituen programa psikosoziala da. | Gizarte-ekintza | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **3.1** | **Familientzako informazio, orientazio eta balorazioa** | Babesgabetasun arriskua edota egoera pairatzen duten familiei atentzioa eta esku hartzea sustatzen duen zerbitzua. | Gizarte-ekintza | urtero | Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| **3.1** | **Drogen testingak** | Herriko jaietan sustantzia toxiko kontsumoaren kontzientzia eta prebentziorako ipintzen diren guneak. | Gizarte-ekintza | urtero | Herritarrak | |
| **3.1** | **Irakasleen sentsibilizazio eta formakuntza** | Hezkuntza publikoko irakasleak haur eta nerabeen zaurgarritasun eta babesgabetasun egoerez sentsibilizatzea | Gizarte-ekintza | 2025 | | |
| **3.2** | ***Sexubizi* gune morea** | Jai giroan ematen diren genero erasoei aurrea hartzea, gertatzen direnei aurre egitea, eta honen kontzientziazioa bultzatzea du helburu. Gune segurua da eskatzen duen edozein pertsonarentzat. Laguntza emozionala, informazioa, aholkua eta orientazio lana egiten du. | Berdintasuna | urtero | Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| **3.2** | **"Domekak kirolian"** | Neguko igande arratsaldeetan Ipuruako kantxan kirol jarduera ezberdinetako animazioa 8-11 urtekoentzat | Haurreria eta Gazteria | 2025 | Haurrak (6-11); | |
| **3.2** | **Igeriketa egokitua** | Desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako igeriketa jarduera. | Kirola | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **3.2** | **Eskola kirol egokitua (EKE)** | Duten desgaitasunagatik Multikirol programan gainontzeko haurrekin jarduerak ezin dituzte burutu, nahiz eta helburu nagusia Multikirol programan sartzea den, Lurreko eta uretako jarduerak. | Kirola | 2027, 2028 | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **3.2** | **Eskoletan adikzioen prebentzioa** | Alkohola eta sustantzia toxikoak eskoletan lantzen dituzten tailerrak eskaintzen dira. | Gizarte-ekintza | urtero | Nerabeak (12-18); | |
| **3.2** | **Alkohol kontsumoaren kontzientzia (Botiltzarra)** | Herriko jaietan alkohol kontsumoaren kontzientzia eta prebentziorako ipintzen diren guneak. | Gizarte-ekintza | urtero | Herritarrak | |
| **3.3** | ***Multikirola* programa** | 6-11 urteko haurrentzat eskolaz kanpoko jarduera fisiko antolatua. Kirol anitzekoa eta lehia partehartzailea bultzatu. | Kirola | urtero | Haurrak (6-11); | |

## 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **3.3** | **Igeriketa sustapen kanpaina** | Eskola-umeek (6-10 urte) igerian ikasteko ikastaroak, eskola orduan. | Kirola | urtero | Haurrak (6-11); | |
| **3.3** | **Udal Dantza eskolako jarduerak** | Haur eta nerabeei zuzendutako dantza saio gidatuak. Dantza, erritmoa, psikomotrizitatea, etab. lantzen dira. | Kirola; Kultura | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **3.3** | **Igeriketa jarduerak** | Haur eta nerabeei zuzendutako igeriketa saio gidatuak. Mailaren arabera banatzen da (ahatea, izurdea,...) | Kirola | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **3.3** | **Jolas Hezi programa** | 6-8 urtekoentzat eskola kiroleko programa. Kirol aurreko etapa batean, joko eta jolasak ikastea gaitasun motor eta sozialak lantzeko. | Kirola | 2027, 2028 | Haurrak (6-11); | |
| **3.4** | **"Basarrixa hurretik"** | Herriko landa ingurunera hurbiltzeko bidea ematea du helburu. LH 5-6 eta DBH 1-2 mailetako ikasleei baserritarrak bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen zaie, bereziki diseinatutako ibilbide eta tailerren bitartez. | Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza; | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **3.4** | **Klima alda-ketari buruz-ko sentsibili-zazio kanpainak** | Udalak *Asteklima*n (Euskadiko Klima Aldaketaren Astean) parte hartzen du eta hainbat ekitaldi antolatzen dira (ipuin-kontalaria 3-7 urtekoentzat, interes-gunea liburutegian, interpretazio ibilaldia, tailer zientifikoa, etab.) | Ingurumena | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Herritarrak | |
| **3.4** | **Hondakinen inguruko sentsibiliza-zio kanpainak** | Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin lotutako ekimenak antolatzen dira ikastetxeekin eta herritarrekin. Bestalde, urtean zehar bigarren eskuko 3 azoka antolatzen dira (udakoa, bizikletena eta gabonetakoa) | Ingurumena | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **3.4** | ***Rexcatering* proiektua** | Jangela kolektiboetan soberan dauden elikagaien anoak "Eibar Zero Hondakin" vending makinan herritarrentzako eskuragarri jartzea. Egun Iturburu ikastetxeak hartzen du parte. | Ingurumena | urtero | Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **3.4** | **Baso-berritze ekintzak ikastetxeekin** | Ikastetxeei zuzendutako zuhaitz landaketa jardunaldiak. | Ingurumena | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |

| 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| **3.4** | **Zuhaitz eguna** | Urtean behin udal jabetzako lursailetan bertako zuhaitzak landatzeko ekintza antolatzen da herritarrentzat. | Ingurumena | urtero | Herritarrak | |
| **3.4** | **Mugikortasun jasangarriaren arloko kanpainak** | Heziketa- eta sentsibilizazio-kanpainak, herritarrei oro har zuzenduak eta kolektibo zehatzei (pertsona nagusiak, eskolako ikasleak, etab.). Jarduerak mugikortasunaren astean eta, modu osagarrian, sentsibilizazio-ekintza zehatzagoak proposatuko dira, mugikortasun jasangarria ahalbidetzera bideratutako proiektuekin lotuak | Ingurumena | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **3.4** | **Jasangarritasunaren arloko irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntza** | Bi diru-laguntza izendun ematen dira: Eibarko Baso Biziak eta Eibarko Klub Deportiboko Urpekaritza taldeari. Biek umeentzako jarduerak antolatzen dituzte. Eibarko Klub Deportibo-k antolatzen dute "Itsaspeko zinemaren nazioarteko Zikloa" (CIMASUB). Ziklo horren barruan daude bi jarduera umeentzat zuzendutakoak; ikastetxeentzako TXIKIZIKLOA (LH 5-6) eta familientzako TXIKIZIKLOA. | Ingurumena | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| **3.4** | **Eskola agenda 2030** | LH4tik gorako ikasleekin ingurumen eta jasangarritasunari buruzko lanketa. Eskolarteko batzarrak proiektu bat definitzen du eta ondoren Udaletik gauzatzen da | Ingurumena; Alkatetza | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **3.4** | **Euronet 50/50** | Eskola-komunitatea kontsumo arduratsuan sentsibilizatzeko eta energiaren aurrezpen-ekintzetan inplikatzeko ekimena. Energia fakturetan aurreztutakoaren %50 itzultzen zaio ikastetxeari. Ekimena 2026an jarriko da martxan parte hartu nahi duten HH eta LHko ikastetxe publikoetan. | Ingurumena | 2026tik aurrera urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); | |

## 4. HELBURUA Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz

Euskaraz jakitea eta hitz egitea haur eta nerabeen eskubidea da eta integratzeko eta gizartean parte hartzeko funtsezko tresna da. Hala ere, diagnostikoak agerian uzten du euskararen gaineko ezagutza handitu egin dela D ereduari esker, baina eguneroko erabilerak mugatua izaten jarraitzen duela, batez ere ingurune informaletan eta parekideen artean. Helburu honek euskararekiko harremana indartzea planteatzen du. Horretarako,

**jarduera motibatzaileak eta espazio ludikoak sustatu nahi ditu euskara modu natural, dibertigarri eta gertukoan** bizi dezaten adin goiztiarretatik.

Gainera, familiek sozializazio linguistikoaren prozesuan duten funtsezko rola aitortzen du. Hori dela eta, **euskararen ikaskuntzan eta erabileran inplikazio aktiboa sustatzeko** ekintza espezifikoak aurreikusten ditu Planak, bai etxeko arloan, bai bizitza komunitarioan.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz **HEHren "1. Besteek norbera baloratzeko, errespetatzeko eta bidezko moduan tratatzeko eskubidea" eta "5. Haur izateko eskubidea"** helburuekin eta **GJHen** helburu hauekin:

- *11.4. Munduko kultur eta natur ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.*
- *18.1 Hizkuntza minorizatuak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ezagutaraztea, identitateak indartzeko.*
- *18.2 Hezkuntza-eredu elebidunak/eleaniztunak sustatzea, gutxienez bi hizkuntzaren erabilera praktikoak bermatzeko, eta hizkuntza minorizatua behar bezala irakasten dela ziurtatzea beti.*

Ekintzak bi jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 4.1 Ingurune informaletan euskararen erabilera indartzeko motibazio-estrategiak eta jarduera ludikoak sustatzea, adin goiztiarretatik euskara erabiltzeko ohitura har dezaten.
- 4.2 Familiak euskara ikasteko prozesuan eta erabileran inplikatzea, familientzako sentsibilizazio-programen eta jardueren bitartez.

| **4. helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| 4.1 | **Mintza On** | Euskararen errefortzurako online baliabidea, haurrentzat diseinatua | Euskara | urtero | Haurrak (6-11); | |
| 4.1 | **Ongi etorri euskarara** | Nerabeentzako euskara errefortzu saioak giro ludikoan (gaztelekuan) | Euskara | urtero | Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **"Jira bueltan"** | Haur hezkuntzako ikastetxeetan, bertan bazkaltzen duten haurrekin kaleko jolasak euskaraz lantzeko tailerrak (2 saio) | Euskara | urtero | Haurrak (0-5); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.1 | **"Gu ere bertsotan"** | LH 5-6 mailetako umeekin eskola orduetan ahozkotasuna modu ludikoan lantzen da bertsolaritzaren bitartez | Euskara | urtero | Haurrak (6-11); | |
| 4.1 | **Bertsolaritza inklusio bide** | DBH 1 mailako ikasleek bertsolaritzaren bidez hainbat balio lantzen dituzte | Euskara | urtero | Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **Bertso emanaldia** | DBH 1 mailakoek bertso saio bat antolatzeko pauso guztiak eman behar dituzte | Euskara | urtero | Nerabeak (12-18); Herritarrak | |

**4. helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz**

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.1 | **Euskara zine aretoetara** | Eskolei bideratutako eskaintza. Euskarazko film proiekzioa Coliseoan eta unitate didaktiko bat filmaren gaia gelan lantzeko | Euskara | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **Arrateko jarduera** | Euskararen erabilera, talde-kohesioa eta herriaren ezagutza helburu dituen egun-pasa. DBH 2ko gelentzat antolatzen da, urtero. Ikastetxetik Arratera oinez joaten dira eta bertan hainbat jarduera ludiko eta pedagogiko egiten dituzte. | Euskara | urtero | Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **Musikala** | DBHko ikasleek euskarazko musikal bat prestatzeko jarduera | Euskara | 2025 | Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.1 | **Motibazio saioak** | DBH eta Lanbide Heziketako ikasleentzako euskararen aldeko motibazio saioak | Euskara | urtero | Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **Euskararen eguna** | Ume eta gazteentzako ospakizun egitaraua | Euskara | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| 4.1 | **Game erauntsia** | DBHko ikasleentzako euskarazko streamer tailerrak | Euskara | 2025, 2026 | Nerabeak (12-18); | |
| 4.1 | **Soziolingusiti-ka proiektua** | DBHko zuzendaritza eta klaustroekin lantzen den proiektu integrala | Euskara | 2025, 2026, 2027 | Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.2 | **Euskarazko produktuen katalogoa** | Familiei gabon garaian umeentzako euskarazko jolas eta jokoen berri emateko katalogoa | Euskara | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.2 | **Oporretarako jolasen gida** | Umeen bitartez familiei udaberrian eta udan euskarazko liburu eta jolasen gida banatzen zaie | Euskara; liburutegia (kultura) | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.2 | **Umeen bertso jaialdiak** | Umeak bertsolari direlarik Coliseoan familien eta herritarren aurrean ekitaldia | Euskara | urtero | Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.2 | **Infografia** | Familiei hizkuntza gomendioak emateko infografia | Euskara | urtero | Guraso, tutore, familiak; | |

| 4. helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
| 4.2 | **"Gurasoak ere eskolara"** | HH eta LHko umeen gurasoentzako euskara ikastaroa eskaintzen du udal euskaltegiak ikastetxean bertan | Euskara | urtero | Guraso, tutore, familiak; | |
| 4.2 | **"Zorionak" diptikoa** | Haur jaio berriak erregistratzera etortzen direnean, gurasoei banatzen zaien diptikoa. Hizkuntza orientazioari buruzko informazio eta gomendioak jasotzen ditu. | Euskara | urtero | Guraso, tutore, familiak; | |

## 5. HELBURUA Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz

Aisialdia eta denbora librea ezinbesteko dimentsioak dira haur eta nerabeen bizitzan, ez soilik atseden hartzeko eta gozamenerako espazio gisa, baita sozializatzeko, garapen pertsonalerako eta komunitatean parte hartzeko arlo garrantzitsu gisa ere. Eibarko diagnostikoak kirol eta kultura ohiturak finkatuak daudela erakusten du, **baina jarduera eskaintza ez dela beti behar bezain erakargarria edo askotarikoa**, batez ere, adin-talde edo interes-talde batzuentzat. Gainera, gabeziak identifikatu dira urte osoan zehar **elkartzeko espazio irisgarri, seguru eta egokiei** dagokienez.

Hori dela eta, HNTPak aisialdirako aukerak handitzea eta dibertsifikatzea proposatzen du, irisgarritasuna eta haur eta nerabeen benetako interesei erantzutea bermatuz. Hortaz, **azpiegitura publikoak sortu eta hobetuko dira**, besteak beste, plazak, parkeak eta aire libreko espazioak, eta berdintasuna, inklusioa eta parte-hartzea sustatzeko **kultur eta aisialdi eskaintza diseinatuko da**.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz **HEHren “4. Ingurune seguru eta garbietan bizitzeko eskubidea” eta “5. Haur izateko eskubidea”** helburuekin eta **GJHen** helburu hauekin:

- *4.a. Haur eta nerabeen eta desgaitasuna duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituzten eta ikasteko ingurune seguruak, oldarkorrak ez direnak, inklusiboak eta eraginkorrak eskainiko dituzten hezkuntzako instalazioak eraikitzea eta egokitzea.*
- *10.2. Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomikoa eta politikoa sustatzea eta bultzatzea, adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza gorabehera.*
- *11.3 Hemendik 2030era bitarte, urbanizazio inklusibo eta jasangarria eta giza kokaguneen plangintza eta kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria egiteko gaitasuna handitzea herrialde guztietan.*
- *11.7. Hemendik 2030era, berdeguneetarako eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbide unibertsala eskaintzea, batez ere emakumeentzat, haurrentzat, adineko pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat..*

Ekintzak hiru jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 5.1 Haurrak eta nerabeak elkartzeko espazioak eta zerbitzuak sustatzea eta urte osorako irisgarriak izatea.
- 5.2 Kulturako eta aisialdiko eskaintza erakargarria eta askotarikoa diseinatzea.

- 5.3 Parkeak, plazak eta espazio publikoak hobetzea, haur eta nerabeentzako ingurune seguru eta inklusiboak bermatzeko.

| 5. helburua. Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| **5.1** | **"Kirola familian"** | Udazkeneko eta neguko larunbat eta igande arratsaldeetan 0-5 urteko haurrak dituzten familientzat jolas librerako gunea eskaintzen da kiroldegian | Haurreria eta Gazteria; Kirola | 2025 | Haurrak (0-5); Guraso, tutore, familiak; | |
| **5.1** | **Ludotekak** | Haurren sustapenerako aisia hezitzaileko zerbitzua. Ikasturtean zehar eskaintzen da. Auzoko eta herriko herri-bizitzan partehartzea. | Haurreria eta Gazteria | urtero | Haurrak (6-11); Guraso, tutore, familiak; | |
| **5.1** | **Indianonekua gaztelekua** | Nerabeen sustapenerako aisia hezitzaileko zerbitzua. Ikasturtean zehar eskaintzen da. Auzoko eta herriko herri-bizitzan partehartzea. | Haurreria eta Gazteria | urtero | Nerabeak (12-18); Guraso, tutore, familiak; | |
| **5.1** | **Patinajea** | Neguan, azarotik martxora, igandetan Ipuruako kiroldegian egiten den 2 orduko saioa. Partehartze librea. Begiralea | Kirola | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **5.1** | **Udal Musika eskola** | Musika eta mugimendua, musika hizkuntza, instrumentu klaseak etab. ikasturtean zehar. 4 urtetik aurrera | Kultura | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **5.1** | **Udal Margo eskola** | Marrazketa eta pinturako teknika ezberdinak lantzeko tailerrak ikasturtean zehar. 8-12 eta + 13-16 urteko taldeak. Hortik aurrera helduen taldean | Kultura | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **5.1** | **Udal Zeramika eskola** | Buztina landu eta dekoratzeko teknika ezberdinak lantzeko tailerrak ikasturtean zehar. 8-12 eta + 13-16 urteko taldeak. Hortik aurrera helduen taldean | Kultura | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **5.2** | **Haur eta nerabeentzako eskaintza berezia** | Eskola oporretan edo ohiko zerbitzuaz gain eskaintzen diren udaleku, tailer, ikastaro eta animazioak | Haurreria eta Gazteria | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); | |
| **5.2** | **Udal Liburutegia** | Haur liburutegi propioa. Haur txokoa (0-5). Liburuak adinka sailkatuak. Zapatuetako ipuina (hilean behin ipuin kontalaria 3 urtetik gora). Irakurketa klubak adinka sailkatuak. Irakurketa sustatzeko kanpainak. | Kultura | urtero | Haurrak (0-5); Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18); Herritarrak | |
| **5.2** | **Antzerki laborategia** | Antzerki klaseak adinka sailkatuak (haurrak, nerabeak eta helduak) | Kultura | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak | |

| 5. helburua. Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUERAREN ILDOA** | **EKINTZA** | **DESKRIBAPENA** | **SAIL ARDURADUNA** | **EPEA** | **HARTZAILEEN KOLEKTIBOA** | **GJH** |
| | | | | | (12-18); Herritarrak | |
| **5.2** | **Agenda kulturala** | Antzerki Jardunaldiak, Eskolarteko Antzerki Jardunaldiak, Jaixak, Arte Eszenikoak, Musika emanaldiak | Kultura | urtero | Herritarrak | |
| **5.3** | **Gabilondo eraikina birgaitzea** | Erabilera anitzerako egokituko da. Besteak beste, familientzako espazioa izango da (parke berri bat berdeguneekin, eta plaza estali bat haur eta gazteei zuzendutako altzariekin). | Obrak; Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza; Haurreria eta Gazteria; | 2025, 2026 | [ez da herritarrentzat] | |
| **5.3** | **Mutiola kalea berrurbanizatu eta parkea berritzea** | Mogel ikastolako Sansaburu eraikinaren parean dagoen parkea eta berau inguratzen duen Mutiola kalea berritzeko lanak | Obrak; Ingurumena | 2025 | [ez da herritarrentzat] | |
| **5.3** | **Arragueta kalea koexistentzia-gune bihurtzea** | Oinezkoen eta autoen espazioak orekatzeko hirigintza lanak | Obrak; Ingurumena | 2026 | [ez da herritarrentzat] | |
| **5.3** | **Errekatxu parke berria** | Etxebizitza berriekin batera jolas parke bat eraikiko da Errekatxu kalean | Obrak; Ingurumena | 2025 | [ez da herritarrentzat] | |

## 6. HELBURUA Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea

Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko, tokiko politika publikoak diseinatzeko eta kudeatzeko modua eraldatu behar da. Horretarako, **gobernantza-eredu inklusiboagoa behar da**, soilik helduak aintzat hartzen dituen ikuspegia atzean utzi eta udalerriko haur eta nerabeen ahotsa, esperientziak eta beharrak aitortu eta baloratzen dituen ikuspegia ezarriz. Ikuspegi aldaketa horrekin batera, Udaleko erabakiek haur eta nerabeen eguneroko bizitzan duten benetako eraginari buruz gogoeta egin behar da, eta beren interesak jarduketen plangintza eta gauzatzean txertatu.

Hori lortzeko, garrantzitsua da Udaleko sail guztiek eta haur eta nerabeekin lan egiten duten gizarte eragile guztiek konpromiso aktiboa izatea. Gainera, beharrezkoa da **ekintza publikoa estrategikoki orientatzeko tresnak izatea**, besteak beste, diagnostiko parte-hartzaileak eta haur eta nerabeen tokiko planak. Tresna horiek lehentasunak identifikatzeko, baliabideak koordinatzeko eta haur eta nerabeen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko aurrerapauso koherenteak emateko aukera ematen dute.

Helburu honetan proposatutako ekintzak bat datoz zeharkako bi lan-arlorekin, **T1 "Egitura eta politikak" eta T2. "Gobernantza"** eta **GJHen** helburu honekin:

- *17.17 Esfera publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sustatzea eta sortzea, esperientzia eta aliantzetatik baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.*

Ekintzak bi jarduketa-ildotan zehatzen dira:

- 6.1 Haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko lan-espazio bateratuak sortzea.
- 6.2 Haur eta nerabeen ikuspegian oinarritutako tokiko politikak diseinatzea.

**6. helburua. Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea**

| JARDUERAREN ILDOA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | SAIL ARDURADUNA | EPEA | HARTZAILEEN KOLEKTIBOA | GJH |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 6.1 | **HHL barne koordinazio mahaia** | Udaleko hamahiru sail biltzen ditu Haurren Hiri Laguna lanketaren inguruan. | Gizarte-ekintza | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **Gizarte zerbitzuen koordinazio mahaia** | | Gizarte-ekintza | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **"Lehen hezkuntzako mahaia"** | Ikastetxe publikoetako zuzendaritzekin eskola segregazioa lantzeko espazioa. 2024 eta 2025ean egoeraren diagnostikoa osatu eta protokoloa definitu da | Gizarte-ekintza | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **Harrera plana lantzeko udal taldea** | Herritarrei arreta zuzena ematen dieten udal sailen artean etorri berrientzako harrera plana lantzeko talde bat osatu da. | Gizarte-ekintza | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **Genero indarkeriari buruzko erakunde arteko mahaia** | | Gizarte-ekintza; Berdintasuna ??? | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **Ikastetxeen bidez euskararen erabilera sustatzeko koordinazio espazioak** | Udaleko Euskara sailak hezkuntza ziklo ezberdinetako ikastetxeekin Euskararen inguruko lanketa koordinatzeko mahaiak | Euskara | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.1 | **AKEBAI** | Eibarko udalaren Euskararen Plan Estrategikoaren harira sortutako marka da Akebai. Helburu nagusia herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatzea eta saretzea da, fokua, batez ere, Eibarko gazte eta haurren eremuan jarrita. | Euskara | urtero | Guraso, tutore, familiak; Herritarrak | |
| 6.1 | **Berdintasun protokoloen jarraipen espazioak** | Udaleko Berdintasun sailak Udal barruan, herri mailan eta ostalaritzako eragileekin genero-indarkeria kasuetarako protokoloak landu ditu eta horien jarraipenerako espazioak ditu. | Berdintasuna | urtero | [ez da herritarrentzat] | |
| 6.2 | **Haur eta Nerabeen diagnostikoa eta udal Plana osatzea** | Haurren Hiri Laguna prozesua abiatzeko, herriko haur eta nerabeen errealitateari buruzko diagnostikoa egin da. Hortik abiatuta, 2025-2028 aldirako Plana definituko da. | Gizarte-ekintza | urtero | Haurrak (6-11); Nerabeak (12-18) | |

# 7. HAUR ETA NERABEENGAN EGINDAKO INBERTSIOA

Udal sailek aurkeztutako ekintzei esleitutako aurrekontuetatik abiatuta, Eibarko haur eta nerabeei bideratutako zeharkako inbertsioaren gutxi gorabeherako estimazioa kalkulatu da. Aurreikuspen horren arabera, **8.220.170 €-ko** inbertsioa egingo da gutxienez datozen urteotan udalerriko haur eta nerabeen ongizatea, garapen integrala eta bizi-kalitatea sustatzeko.

HAUR ETA NERABEEI ZUZENDUTAKO JARDUERETAN ETA ZERBITZUETAN EGINGO DEN GASTU ZUZENAREN ESTIMAZIOA 2025-2028

| HELBURUAK | Haur eta nerabeentzako gastu zuzena 2025ean | Planaren gastu zuzenaren estimazioa 2025-2028 |
|---|---|---|
| 1. helburua. Familia guztien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea eta gurasotasun positiboa babestea | 9.427 € | 9.427 € |
| 2. helburua. Haur eta nerabeek beren bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatzea eta haien eskubideak gauzatzen dituztela bermatzea | 51.484 € | 206.317 € |
| 3. helburua. Ongizatea eta buruko osasuna sustatzea haur eta nerabe guztien artean | 1.135.564 € | 4.602.302 € |
| 4. helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea haur eta nerabeen artean, egunerokotasunean integratzea sustatuz | 133.883 € | 398.932 € |
| 5. helburua. Aisialdirako eta denbora librerako aukerak handitzea, haur eta nerabeak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak hobetuz | 703.720 € | 2.815.992 € |
| 6. helburua. Haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen udal gobernantza-eredua ezartzea | 43.200 € | 187.200 € |
| **GUZTIRA** | **2.077.278 €** | **8.220.170 €** |

Oharra: Partiden batura honek ez ditu Udaleko gastu propioak eta langileen kostua barne hartzen.

# 8. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

HNTParen jarraipen- eta ebaluazio-sistemak Haurren Hiri Laguna Koordinazio Mahaian ordezkatuta dauden udaleko sailen, haur, nerabe eta beren familiekin lan egiten duten gizarte eragileen eta Eibarko Haur eta Nerabeen Kontseilua osatzen duten kideen parte-hartze aktiboa izango du. Horiek guztiek jarduera-adierazleen gaineko informazioa emango dute eta Planaren esparruan ezarritako helburuen betetze maila baloratuko dute.

Urteko datu-bilketa eta ebaluazio-prozesuaren fase guztien koordinazioa Gizarte-ekintza Sailak egingo du eta rol zentrala izango du.

HNTParen jarraipen eta ebaluazio egokia bermatzeko, sistema hau proposatzen da:




## Urteko jarraipena

HHLren Barne Koordinaziorako Mahaia osatzen duen sail bakoitzak urtero aurreikusitako jardueren garapen mailari buruz kontuak emango ditu. Sailek honi buruzko informazioa ematea aurreikusi da:

| EIBARKO HNTP-AREN URTEKO JARRAIPENAREN ADIERAZLEAK | EMAITZAK |
|---|---|
| 1. **Aurreikusitako ekintzen betetze maila** | • Egina<br>• Partzialki garatua<br>• Hasia<br>• Garatu gabe |

| EIBARKO HNTP-AREN URTEKO JARRAIPENAREN ADIERAZLEAK | EMAITZAK |
|---|---|
| **2. Egindako gastua** | • Gastua guztira (€)<br>• % (estimatutako gastuaren gainean)<br>• Erabilitako udal-baliabideak (Bai/ez) |
| **3. Ikuspegiak** | • Berariaz aurreikusi da haur eta nerabeek ekintzaren diseinuan, gauzatzean edo ebaluazioan PARTE HARTZEA (Bai/Ez)<br>• Berariaz aurreikusi da DESGAITASUN FUNTZIONALA duten haur eta nerabeek ekintzarako edo jarduerarako sarbidea izatea (Bai/Ez)<br>• Berariaz aurreikusi da ekintzaren garapenean BERDINTASUNA eta GENERO DIBERTSITATEA lantzea (Bai/Ez)<br>• Berariaz aurreikusi da ekintzaren garatzean EUSKARAREN erabilera eta ezagutza sustatzea (Bai/Ez) |
| **4. Jardueraren erabiltzaile kopurua** | • Neska kopurua<br>• Mutil kopurua<br>• Kopuru osoa |
| **5. Jarraipenaren (ekintzaren garapena) edo emaitzaren (ekintzaren inpaktua) adierazle espezifikoa** | • Udaleko sailek proposatutako adierazleak<br>• HHLren ekimenaren esparruko adierazleak |
| **6. HNTPan aurreikusiak ez zeuden ekintza berriak sartzea** | • Ekintza identifikatzea eta deskribatzea<br>• Ekintzaren garapen maila<br>• Garatzeko estimatutako epea<br>• Hartzaileen kolektiboa<br>• Ekintzaren ikuspegiak<br>• Egindako gastua<br>• Erabiltzaile kop.<br>• Jarraipenaren edo emaitzaren adierazle espezifikoa |

Gainera, Haurren Hiri Lagunak programako konpromisoekin bat etorriz, **informazio-bilketa** egingo da **urtero** adierazle hauetan oinarrituta, aurrerapen maila eta HNTParen ekintzen inpaktua ebaluatzeko:

| HNTP-AREN JARRAIPENERAKO ADIERAZLE GAKOAK | EMAITZA |
|---|---|
| **1. Haur eta Nerabeen Parte-hartze Organoan (HNPO) parte hartzen duten eta bertan parte hartzeak gaitasunak hobetzen eta trebetasunak garatzen lagundu diela adierazi duten (inkesta baten bidez) haur eta nerabeen ehunekoa** | • Balorazio altua<br>• Balorazio ertaina<br>• Balorazio baxua |
| **2. Aukeratu 1etik 3ra HNPOko haur eta nerabeek nola baloratzen duten beren gaitasunak eta trebetasunak hobetu izana espazio horretan parte hartzeagatik. 1 baxua da, 2 ertaina eta 3 altua.** | • Balorazioa guztira |
| **3. HNPOan ordezkaritza duten eta tokiko gobernuan dauden ikastetxeen ehunekoa** | • % ikastetxe guztien gainean |
| **4. HNPOan parte hartzen duten eta erakunde horretako parte direlako gustura dauden haur eta nerabeen ehunekoa** | • Guztira neskak, mutilak eta beste batzuk |
| **5. HNPOak tokiko gobernuko ordezkari politikoekin urtean izandako bilera kopurua.** | • Guztira bilerak<br>• Alkatetzakoak<br>• Zinegotzienak |
| **6. Tokiko erakundeak haur eta nerabeen planarekin lotuta argitaratu duen albiste kopurua** | • Komunikazio-piezak guztira<br>• PRENTSA OHARRA<br>• Tokiko gobernuaren webguneko albisteak<br>• Irrati-programak<br>• Tokiko gobernuaren sare sozialetako argitalpenak |
| **7. Tokiko erakundearen urteko aurrekontu osoarekiko Haur eta Nerabeen Tokiko Planaren jarduerak garatzera bideratutako ehunekoa** | • Aurrekontu osoaren gaineko % |

| HNTP-AREN JARRAIPENERAKO ADIERAZLE GAKOAK | EMAITZA |
|---|---|
| **8. HNTParen barne-koordinaziorako organoaren urteko bileren kopurua** | • Bilerak guztira<br>• Urteko aurrez aurreko bileren kopurua<br>• Urteko bilera birtualen kopurua |
| **9. Barne-koordinaziorako organoaren/espazioaren bileretan aktiboki parte hartzen duten tokiko erakundearen sailen ehunekoa** | • Sail funtzionalen gaineko % |
| **10. Haur eta nerabeek sustatutako, ahalbidetutako eta bultzatutako espazio kopurua (tokiko jaietako ekitaldiak eta hirigintzakoak kenduta)** | • Espazioak guztira |
| **11. Tokiko erakundearen partetik baloratuak, errespetatuak eta bidezko moduan tratatuak sentitzen direla adierazi duten haur eta nerabeen ehunekoa** | • Guztira neskak, mutilak eta beste batzuk |
| **12. Inkesta baten bidez HEH eta haurren eskubideak ezagutzen dituztela adierazi duten haur eta nerabeen ehunekoa** | • Guztira neskak, mutilak eta beste batzuk |
| **13. Jatorri migratzaileko haur eta nerabeei arreta eskaintzeko, kohesio-soziala sustatzeko eta gizarteratzeko programa kopurua** | • Programak, guztira |
| **14. LGTBI haur eta nerabeei arreta eskaintzeko gizarte-kohesioko gizarteratze- eta sustapen-programen kopurua** | • Programak, guztira |

## Ebaluazioa

Planaren lehen ezarpen-urtean, aurreikusitako ekintzen garapenaren eta horien inpaktu errealaren ebaluazio zorrotza egingo da. Prozesu horrek, Planaren etengabeko hobekuntza orientatzeko ikuspegi partekatu eta aberatsagoa jasotzeko, Haurren Hiri Lagunak Barne Koordinazio Mahaiaren eta Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluan parte hartzen duten haur eta nerabeen parte-hartze aktiboa izango du.

Planaren bigarren urtea amaitzean, HNTPan aurreikusitako ekintzen garapenaren tarteko ebaluazioa egingo da, udal sailek eta HHL programak zehaztutako adierazleen arabera, eta Haurren Hiri Lagunak Barne Koordinaziorako Mahaiak eta Kontseiluko haur eta nerabeek hartuko dute parte.

HNTParen indarraldia amaitzean, urteko jarraipenen (2025-2028) azterketa, prozesuaren adierazleen eta emaitzaren bilakaera eta udal sailek eta Kontseiluko haur eta nerabeek udalerriko haur eta nerabeen ongizatearen eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren gainean duten pertzepzioa jasoko dituen amaierako ebaluazioa egingo da, diagnostikoan identifikatutako erronketatik abiatuta.

EIBARKO HNTP-AREN JARRAIPEN ZIKLOA ETA EBALUAZIOA 2025-2028

| | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|---|---|---|---|---|
